


**Herritik herrira**

UADERNO  
FOTOGRÁFICO  
**PUNO  
Y KORMA**  
DE EUSKAL HERRIA

# Txomin Iturbe hil zeneko lehenengo urtemuga



*dos grandes  
"pequeños"*

JATA



En primera línea...

...nuestro mejor aval.

J A


T

A

ELECTRODOMESTICOS EIBAR, S.A.L. - Apdo. 195 - EIBAR (Guipúzcoa) SPAIN - Telex: 38533 - Teléf. (943) 71 82 43 (3 líneas)

# INDICE

- 5 Aurkezpena. «Herritik herrira»: Txominen omenez, denon omenez
- 6 Maite Goikoetxea, Bolieren bizipoz eta minak
- 9 Euskal Iraultzaren bidean
- 13 El nacimiento de una vanguardia
- 16 Peixoto mintzo Txominez. Militante isil baten itzala
- 22 Ezagutu zuten Txomin... Hegoaidean: Jesús Moreno, Fray Rufino eta Xabier Zubizarreta
- 25 Xabier Amurizak Txomini eskainitako bertsoak
- 26 Txominen bizitzari buruzko zenbait datu
- 27 Euskal gudari baten txuribeltzezko irudia
- 35 Txomin ezagutu zuten... Iparraldean: Christian Etxaluz, Jean Louis Davant eta Beñat Oihartzabal ...
- 42 Ultima entrevista de Txomin Iturbe en Argel
- 48 Hildako ETAKideen zerrenda
- 52 La despedida de todo un pueblo: «Esos son los imprescindibles»
- 55 Dijeron de Txomin...
- 58 Actos conmemorativos en el I Aniversario de la muerte de Txomin Iturbe



**PUNTO  
Y HORA**

DE EUSKAL HERRIA

número  
507

>Edita,  
Imprime: Orain, S.A.  
Redacción y administración:  
Apartado 1.397,  
San Sebastián.  
Telf.: 943-55 47 12.  
Depósito legal:  
SS-665/77.

## DISTRIBUCION

**Bilbao:** Telf.: 94-424 44 05.  
**Iruña:** Telf.: 948-22 71 00.  
**Donostia:** Telf.: 943-55 47 12.  
**Irún:** Telf.: 945-27 87 77.  
**Barcelona:** Jordi Nicuesa.  
Telf.: 93-254 69 92.  
**Madrid:** Paulino Jiménez.  
Telf.: 91-206 42 64.  
**Zaragoza:** Dasa.  
Telf.: 976-21 07 35.

## DEFENDER LOS DERECHOS HUMANOS Y LA LIBERTAD CUESTA MUCHO AYUDANOS UN POCO

Amnistía Internacional, la organización independiente que defiende los Derechos Humanos en todo el mundo. Hazte socio de la libertad.

Nombre .....  
Dirección .....

Desea recibir información para asociarse a la U.T. Euskadi de Amnesty International (envíese a los Apartados de Correos 803 de Bilbao; 1.109 de San Sebastián, 2.180 de Pamplona y 334 de Vitoria).

**AMNESTY INTERNATIONAL**

# Buruzagi Txomin


1)  
Arrasaten sortu ta  
Algerian hila  
ardatzean biraka  
lehertu zen gurpila.  
Joan zen bere aurretik  
erorien bila  
heriotzak kenduko  
ez digun mutila.

2)  
Oihanean tantaia  
goraki ageri  
lurreratuta ere  
zutikan dirudi.  
Haren itzal trinkoa  
ez bait zen erori  
Txominek egin digu  
mirari haundi hori.

3)  
Heriotzaren lotan  
eizu amets lasai  
inor ez bai da zure  
lanih kiltzeko gai.  
Euskadik lortuko du  
noizbait edo noiznahi  
Askatasuna eta  
bakea ere bai.

4)  
Abertzale oso ta  
iraultzaile gordin  
bizi zinela eta  
hil ondoren berdin.  
Nahizta horrek askori  
ematen dion min  
zu zara Euskadiko  
buruzagi, Txomin.

Xabier Amuriza



# AURKEZPENA

«Herritik herrira»

## Txominen omenez, denon omenez

**O**rain dela urtebete juxtu, Herioak, Algerian gertaturiko zorigaiztoko istripu baten bidez, Txomin Iturbe eraman zuen. Borrokalari euskalduna hil zeneko lehenengo urtemuga honetan arrasatearraren omenezko ekitaldi ugari antolatu da. PUNTO Y HORAK ere, dagokion arloan, bere emaitza egin nahi izan du eta hona hemen ale berezia.

Eskuartean duzuen aldizkaria asteotan zehar prestatzen genuen bitartean, kezka baten itzala gure buruen gainetik zebilela nabaritu dugu. Txominen izaera ezaguturik, onartuko al zuen halako omenaldirik? Ondo baino hobeto da-kigu galdera honek eskatzen duen erantzuna, Txominen ahoan, ezezko borobilenetik baino pausu bat ere harantzago ez zela joango. Nola gainditu, bada, aipatu koxka? Zorionez, norbaitekjakin zuen adierazten omenaldi honek izan zezakeen esanahia sakona buruzagi zenduaren goraipatze soila izan ez zedila. Eta esanahia ez ezik, asmo hau laburki adierazteko era xume bat ere aurkitu zen: «Herritik herrira», zeren eta Txomin bezalako lagun bat ez bait litzateke agertuko testuinguruak —haragi eta hezurrezko pertsonek osaturiko testuingurua: herria, azken batean— horretarako beta eskainiko ez balu. Txominek zituen berezko dohaiak ukatu gabe, noski, bere bizitzan zehar berriro ere herriaren gaindizko jakin zuen dohaiak. Esan dezagun Txomin Euskal Herria iraunaztearen alde, askatasunaren aldeko borrokan dauden guztiak ispilua dela eta, ondorioz, arrasatearra omenduz, bide honetatik ibili, ibiltzen eta ibiliko diren guztiak omendu nahi ditugula.

**A**le honetan, mugaren alde batean zein bestean, Txomin ezagutu zutenen eritziak bildu ditugu. Den denek Txominen hitzegin digute, noski, baina, aldi berean, borroka baten zergatiak, jasandako pozak eta minak, gainditu beharreko arazoak... eta abar luze bat ere azaldu dizkigute. Beste lantxo batzuetan saiatu gara eskaintzen borrokalari belaunaldi bat —Txominen belaunaldia— sorta razi zuen gizartea —bai, oro ha, Euskal Herriko gizartea; baita, zehazkiago, Arrasatekoak ere—, Iparraldean errefuxiatiuek izandako eragina... Iturbetarren argazki bildumatik irudi ugari atera dugu... Txomin, eskolan, kirolan, soldaduskan, jaietan, lagunartean, familia giroan... Aipatu irudiak guretariko edonor izan zitekeen Txomin batetaz mintzo dira. Ez dugu ahantzi nahi izan arrasatearraren bidetik abiatu direnak, patu txarrak ala etsaiak baztertuta, behin betirako guregandik aldenduak. Ahalik eta zerrenda osoena egiten saiatu gara. Amaitzeko, «Egin»ek argitaraturiko azken elkarritzetarekin batera, Euskal Herriak Txomini Arrasaten eskainitako azken agurraren kronika gogorarazi nahi izan dugu, baita hildako abertzaleaz esandakoen bildumatxo bat egin ere. Jaso ditugun esaldietariko batzu Arrasateko hilerrrian berrirakurtzerakoan, Txomin Iturbe barez lehertu beharrean egongo delakoan gaude.

Besterik gabe, Txomin, «Herritik herrira», zure omenez, denon omenez. ■

# Bolieren bizipoz eta minak



Pilar Iparragirre

**L**antokian, 'Unión Cerrajera'n ezagutu ginen. Nik 15 urte lizango nituen, berak 18 edo horrela. Elkarrekin ibili ginen bera beste aldea joan arte. Noizbehinka ikustera joaten nintzai... Udarako oporretan berarekin egun batzuk pasatzen joan nintzen eta, Iparraldean nengoela, hemen —Arrasaten— erorketa bat egon zen eta nire izena azaldu zuten. Polizia nire etxera joana zela jakin nuen eta ez nintzen itzuli. Irailean hasi behar nuen lanen. Polizia lantokira joan zen... Iparraldean geratu behar...

Ezkondu ziren eta lehenbiziko semea, **Iraultz**, sortu zen. «Hasieran Baionan bizi ginen. Sekula ez gara bakarrik egon, beti beste errefuxiatu mordo batekin bizi izan gara, denei gertatzen zaiena».

Bizimodu irabazi beharra zegoen.

«Errefuxiatuen eta hango Iparraldeko zenbait euskaldunen artean zerra (inbernadero) bat muntatu zen Garrosen, kooperatiba gisa. Denok lan egiten genuen han. Lan asko zegoenean langabe zeuden errefuxiatuak Baionatik eta etortzen ziren bertara, jende piloa».

Lagunen izenak datorkio burura, pertsona asko. Eta, une zoriontuak oriomenean, irudizkatz zaion irribarrea, malkoak estaltzen diote. «Diruz nahiko gaizki ibiltzen ginen ze oso diru gutxi irabazten genuen. Familia hara joateko be ez zen Baionan bezala, urrutiago zegoen eta gutxitan etortzen ziren. Arraultzak besterik ez genituen jaten —denak gogoratuko dute hori: tomatearekin, patatekin, ez dakit zerekin... oiloa edo lapina mahaian zegoenean ehundalako festa izaten zen—. Nahiko garai gogorak ziren, bai».

Hango txantxa eta zalapartak, elkarren artean egin kantuak... baita

Gizaki orok maite du askatasuna, baina oso gutxi dira, bakanak, bizi osoan haren atzetik dihardutenak. Bereiziak bihurtzen dira, besteentzat, ez berak hala nahita —gutxiren asmoan egongo da hori zihuraski—, etorkizun hobeagoaren ametsean ezkutaturik dauden mamuak eten gabe borrokatzen dituztelako baizik, gehiengoak egiten ez duguna. Edozein neska-mutil bezala ezagutu ziren Txomin Iturbe eta Maite Ormaetxea, nornahi gisa elkarrenganako erakartasunaren menpe geratu, eta edonoren antzera batera osatzea zuten etorkizun zoriontsua irudizkatz zuten. Bainaz zuten bizibide erosoena aukeratu.

haserralditxoak ere... «Etxeko lanak eta zerrakoak egin behar ziren. Haurrari jaten ematen eta laguntzen zitzen, baina etxeko lanak guk (emakumeak) egiten genituen, amak dena prest edukitzea ohitura bait zeuden... Gero aldatu ziren, han bakoitz molatu behar zen... Hala pasatu ziren urte batzu, Eustakio hil zuten arte. Orduan hasi ziren espulsoak eta haurra Arrasatera bidali behar izaten genuen. Anabel —Eustakioren emaztea— eta ni maiz bakar bakarrik geratzen ginen eta Baionara jaistea erabaki genuen».

**Harkaitz** sortu berria zen. «Baionan be gauzak goian bezala jarratzen zuten. Denbora gehiago egiten zuen etxetik kanpo etxeen baino, beste errefuxiatu asko bezala. Gogorra da, bai, ez jakitea zer geratzen ari zaion, non dagoean... **Ikortz** jaio zenean be etxetik kampo zen».

Jazarraldia ez zen amaitzen eta ez-

**T**xominekin egun batzu pasatzera joan nintzen Iparraldera eta, bertan nenguela, jakin nuen guardia zibilak Arrasaten zebiltzala nere bila»

kutuan egotea zen salbabide bakarra. «Elkarrekin baino denbora gehiago pasatzen genuen bananduta. Beno, senar-emazte bezala banandu ginen, baina bion arteko harremana beti gorde da. Nik berarekin kontatzea nuen edoztarako, eta berak nirekin berdin. Haurrekin bera egon ahal izateko eta ehundalako historiak muntatu behar izaten genituen, ikastolatik lehenago atera, inor ezezagun inguratzen zen adi egon... beti bel-durrez. Berarekin egon behar nintzen bakoitzean hartu behar ziren horrelako neurriak...»

Polizien erasoaz gain, ezezagunen atentatuak. **Iraultzaren** begi argiei esker onik atera ziren batetik. «Bel-durra? Txikia nintzen eta, puff! ez... Sei bat urte izango nintuen. Etxetik irten eta portaletik atera orduko kontratu nintzen kotxe azpian zaku bat zegoela, patatana edo, eta korrika joan eta amari esan nion. Besterik ez nuen egin».

Hitz gutxiko mutila dugu **Iraulta**, tratueran oso atsegina bada ere. Kirol zale handia, aita bezala. «Ni Errealaren aldekoa izan naiz beti, aita ere bai. Pelota ere asko gustatzen zait, beno, kirol denak... igeri egitea hondartzan asko atsegindut baina, pizsinan ez. Kirotez askotan hitzegiten genuen. Eztabaidak? Bai, izango ziren, baina orain ez ditut gogoratzen».

Ahetzen atxilotua izan zen Txomin, eta Bordeleratua segidan. **Iraulta** eta, han ziren Parisera lehenago eta Gabonerantz gero eramana izan zenean. **Maite** aurreko egunean egona zen berarekin. «Esperantza zeukan Estatu frantses barruan gera ahal izateko. Gabonekoa esan zidatenean ezin nuen sinetsi. 'Egia da?' 'Bai, bai, zihur. Zuri gorantziak emateko esan dit, posible duenean idatzi edo telefonatuko dizula'. Handik egun gutxira jaso nuen bere gutuna, ondo zegoela esanaz».

Eta, azkenik, Algeria. «Gero lortu zuten Algeriara eramatea. Astero deitzen zigun handik, gutun asko ere idatzi zituen, etxera, Arrasatera,



**D**iruz nahiko gaizki ibiltzen gin... arraultzak besterik ez genituen jaten... oiloa edo ma-hai-an zegoenean festa izaten zen»

e.a. hango berriak emanaz. Gabonetan joateko eskatu zidanean haurrak joango zitzazkiola erantzun nion. Ni ere joateko... Eta halan joan gin... denok. Sekulan ez genuen egin 'viaje de novios' edo hori ze, ezkondu ginean be —larunbat batean izan zen, igandea jai baina astelehenan — bakoitza geure lanera joan beharrean izan gin... Ba Algerian egin genuen hori, hiru haurrak eta

**H**aurrekin bera egon ahal izateko ehundalako ixtorioak muntatu behar izaten genituen»

guzti... Oso ondo portatu zen Algeriako jendea gurekin. Hamabost egun pasa genituen han».

«Dena ezberdina zen —dio **Iraultzak**— beste mundu bat. Korrika ere egin genuen aitarekin. Oso gustora ibili gin...».

Gero gutunak... «Gauzak ondo zihoztela esaten zidan bere gutunetan, laster ikusiko ginela berriz han edo hemen... eta hor edo hemen horrek itxaropena zekarren niretzat ere ze ikusten nuen gauzak konpontzeko bidea zeramatela... Eta jakin nuen...»

Astero telefonatzen zuen. Baino aste hartan deirik ez zen izan. «Otsailaren 27an hil zen. Larunbatean etxetik atera beharrean nintzen eta esan nion seme zaharrenari 'aitatxok deitzen badu esan lanera joan naizela eta ondo gaudela, e!' Harrituta nengo baina... Deirik ez zen izan. astelehenean edo —eguna zihur ez dakit— jakin nuen...»

Malkoek eteten dute hitz jarioa. Ahotsa apena entzuterik dagoen... «Oso gogorra izan zen. Haurrei esatea ere... **Harkaitz**ek zioen bezala, 'ama, oraintxe gauzak konpondu zirela eta laster denak elkarrekin bizi behar ginela, oraintxe, zergatik aitatz hil da?'... eta horrelaxe izan zen...» ■.



**Hontza**  
LIBURUDENDA



# EKO

## EKO ASTEASU

Keelavite Poligonua, z/g. Tel. 69 25 26 — ASTEASU

## EKO AIETE

Grupo Etxadi, Tel. 21 14 88 — AIETE (Donostia)

## EKO ALTZA

Larratxo Ibilbidea, 96 zbk. — ALTZA

## *S. Juan Bautista Koperatiba*


Villas auzoa, Tel: 55 01 99 — HERNANI

## SUPER AMARA

Isabel II.a, 16 zbk. Tel. 46 11 77 — DONOSTIA

**Vivodist**

# Euskal iraultzaren bidean



Paulo Iztueta

Iraultzaren ikuspegitik aztertzena noan errealtitate soziologikoa, Burgosko prozesua data sinbolikotzat hartuz, bitan banatua emango dut: 1970. urte aurreko eta ondokoa. **Txomin Iturberen** bizitza bitan banatu zen bezala: herrian eta erbestean.

## 1. Iraultzaren lehen urratsak (1959-1970)

Euskal iraultzaren sorerra eta ondoko bilakabidea ahalbidetzen duten faktore batzu aipatu nahi nituzke, ez bait da deuseistik sortua. Ezinbesteko da, beraz, orduko euskal gizarteari egoera gainbegiratuki bederen ezaugtza.

**a) Egoera ekonomikoa.** Oinarrian, politika ekonomikoari dagokionez, 1959ko Estabilizazio-Plangintza dago. Honen helburua zen zor publikoa murriztea eta, inflazioa gehituz joan ez zedin, kreditu pribatuarri eustea. Honen ondorioz, atzerri kapitala sartu zen, hiru eskualdeetan, Nafarroan izan ezik (hemen industrializazioa 1964ean hasi zen), lehenagotik zetorren hazkunde ekonomikoa izugarri indartuz. Euskal Herriaren urteko errenta erreala, 1955-1975 epealdian, %5,5ekoia izan zen. Garaia. Populazio aktiboaren tasa, orobat, garaia genuen: %46koa 1955ean. Eta langabezia, alderantziz, ia ezdeusa: %0,1ekoa. Hazkunde ekonomikoarekin paralean, demografikoa ere ez zen apalagoa: 1950-1960 epealdian, Euskal Herriak %2,07ko hazkunde-tasa ezaugu zuen. Fenomeno hau, funtsean zonalde industrializatuetara joandako inmigrazioari zor zitzaison, Nafarroa ezik, beste hirurak eskualde hartzaleak izan bait ziren.

Oro har, 1950-1970 epealdian zehar, 375.614 immigratu zegoen hemen kokatua, baina ez integratua. Alderdi estatalistak, bi komunitateen tesia defendatuz, oinarri soziologiko horretan sostengatuko dira euskal langileriaren ineresak zatitzeko.

Estabilizazio-Plangintza horren ondorioz, Espainiako lan-merkatuan atzerri-kapitala sartu bait zen, banka privatu oinarritutako euskal oligarkiari galtzaile izatea tokatu zitaien eta, berarekin batera, baita industria eraldatzailean sostengatuko euskal burgeseria ertainari ere. Bereziki burgeseria ertain honek erakutsiko du bere hasarrea; baina honek ere, langile-interesen kontra, bereak zainduko ditu. Une honetan, oligarkia monopolista ez bezala, antifrankista agertuko da, erreformazalea eta, nazio-arazoari dagokionez, autonomizalea. Industria handia eta ertaina gidatzen duen burgesiak, hazkunde ekonomiko horren itsasoan blai-blai eginda, sekulako etekinak aterako ditu eta unean uneko bere diru-gose horretan, ez da arduratuko berrikuntza teknologikoak egiteaz ere. Askoz erosoago zaio esku-lan merkeaz baliatzea tresnerian inbertitzea baino.

Bestalde, industrian diharduen langileria euskal oligarkia nahiz burgeseriarekiko kontraesanean baldin badago ere, ez dago hain gaizki. Ekonomi koianturak aldekoia izaten segiten duen bitartean, aparteko orduak sartuz, dirua ikusten du eta iraultzarako ez zaio begirik zorroztzen. Horregatik, langile-borrokari dagokionez, Burgosko prozesua aurreko epealdia aski epela izan zela esango nuke. Iraultzak giro hobea aukitu zuen kulturan eta eliz mugimenduetan. Ez da ahaztu behar

ETA bera unibertsitate-munduan jaioa eta nekazal giroan gorpuztua dela.

**b) Kultur egoera.** Gerraostean euskal kulturan emanako berrikuntzaren lehen emaitza kolektiboak 1950etik aurrera hasi ziren gauzatzen. **Orixeren** «Euskaldunak» eta «Urte Guziko Meza-Besperak», **S. Onaindiaren** «Euskal Milla Olerki Eder», **S. Mitxelenaren** «Ama-Semeak Arantzazuko kondairan», «Zeruko Argia», «Egan» eta «Euzko Gogoa», frantziskotarren «GureIzarra» eta «Jakin», karmeldarren «Karmel» eta «Olerti», «Anaitasuna» aldizkariak, Pariseko Euskal Batzar Orokorra eta Arantzazuko Euskaltzaindiaren Biltzarrea, guztiok 1950eko hamarkadakoak ditugu.

ETAren sorrerak, beronek Euskal Herriaren ezaugarri nagusitzat etnia eta hizkuntza azpimarratzean, euskarazko kulturaren politizatzea ekarri zuen. Neurri handi batean, 1960eko hamarkadako euskal kulturaren gorakada eragin politiko horren ondorio izan zela esango nuke. Idazle-belaunaldi berria orduan jaozen euskal kulturara, gehienak komentuetatik zetozena. Guztira, %63 idazle dira 1950az geroztik idazten hasitakoak. Argitaletxe berriak (Gordailu, Lur, Irakur Sail), aldizkari komentalak, Euskalduntze eta Alfabetatze-Mugimendua, Bertsolaritzaren berpiztea, Kanta Berriaren uhina eta, biezkizki, Ikastolen gorpuztea ordutakoak ditugu.

**c) Erlilio-egoera.** Hemen, paraleloan doazen bi mugimendu aipatu behar dira. Batetik, euskal klero gaztearen radikaltasuna dago. Euskal kleroak erregimen frankistaren lehen salakuntza publikoa 1960ean egin zuen 339 apaizzen gutunarekin. Baina apaiz-mugimendua gogortu, zehazki Bizkaia eta Gipuzkoan, 1968tik aurrera gogortu zen, errepressoarekin batera: Derioko ekintza, 20 apaiz inguru erbestean eta 50 inguru gartzelan. Nafarroan geroago, 1973an hain zuzen, gertatu zen antzeko fenomenoa, 30 apaiz inguru izan bait ziren agintaritza zibilarekin arazoak izan zituztenak. Eta, bestetik, Herri Gazteriaren dinamika bizia dauagu, bereziki 1965-1968 epealdian. Zonalderik euskaldunenetako gazteria, nekazari-girokoa gehienbat, herri-errebindikazio sentituenak beregatzen zituen eliz-mugimendu horretan ongi egituratua zegoen eta sekulako eragina zuen herri-razo nagusietan.

Honela, helburutzat gazteriaren hezkuntza zeukan eliz-mugimendu horretan zihardutzen bi sektore horiek, apaiz eta gazte herritarrek alegia, ETAk politika mailan zeraman politizatze-lana asko erraztu zuten. Azken batean, gerraondoko parentesi luze eta isilaren ondoren, ez bakarrik eskabide espezifikoki proletarioak, nazionalak ere egitea eskatzen zitzaion mugimendu honi. Eta honek, une hartan, ETAk zeraman iraultzaren gurdian sartu eta, besteak beste, borroka armatua ere justifikatza suposatzen zuen. Zeregin honetan, faktore erlijiosoak hain indartsua zen une hartan, eliz-mugimenduan aurkitu zuen babesia bortxaren aldeko aukerak.

**d) Egoera politikoa.** Mugimendu politikoa, indar errepublikarren inmobilismoaren lozorroan erdi-geldo zeuden bitartean, ETAren ekintza inguruan mamitu zen. ETAk aro hau herrialdeka eta lau frontetan (langile, militar, kultural eta politikoan) egituratzen eman zuen, «Felipes» deituekin 1966-67an izandako zatiketaren ondoren. Une honetan jasan zuen ETAk ezker espainismoaren bere lehen erasoak, nazioarteko eta Espainiako langile-batasunaren izenean egina. Iraultzaren



Txabi Etxebarrieta, primer muerto de ETA caído en combate. hazia bere erroak aipaturiko fronte horietan botatzen hasia baten ere, fronte militarrean zeuden indarrak zukututa. Erregimen frankista Espana barru eta kanpo kilikolo jarriko zuen Burgosko pzesuak **Melitón Manzanases** heriotzean zeuzkan bere zergatiko hurbilak 1968an.


Iraultzaren hasierako bilakabidea orotara hartuta, 1960ko hamarkadan gauzatzen diren gizarte-gertakarietan faktore batek baino gehiagok parte hartzen badute ere, nire utez, hiruok joko nituzke iraultzaren eragile nagusitzat: faktore kulturala, erlijioso eta politikoa. Eta hiru horietan, bereziki, faktore erlijiosoa nagusitzen dela iruditzen zait. Frankismoaren justifikabide ideologikoa Elizatik datorren bezala, ETArena ere halaxe dator: harena goi-jerarkiak eta honen herri-mugimenduan oinarritutako klero eta laikoetatik.

Hasieran herritar kapa askok amankomunear zuten iraultza hau artean aski zehaztu gabea genuen ideologien aldetik. Humanista, etnizista eta sozialista gehiago hertsiki marxista baino. Hori bai, garbiki independentista eta errotik euskaltzalea.

## 2. Iraultzaren heldutasun-ordua (1970-1988)

Burgosko prozesuaren ondoren, bi une dira garantzitsuenak, euskal iraultzari gogorki oldartzen zaizkionak. Bata da ETA V.a eta ETA VI.aren artean 1970ean emanako zatiketa eta bestea, berriz, juancarlismoak 1975ean ekarritako egoera politiko berria. Bietan euskal iraultza ezaugarritzen duen helburu nagusia jarri da jokuan: «*grosso modo*» esanda, independentzia eta sozialismoa. Eta erasoak jarraitzen du. Zergatik gertatzen den horrela azaldu nahi nuke.

Baina fenomeno horren zergatiko hurbilak azaltzeari ekin aurretik, ohar orokor hau eginez hasi nahi nuke: alegia, euskal gizartea, bereziki gazteria, askoz ere politizatuago agertzen dela aro honetan. Adibide bat: eliz-mugimenduak desegin eta horko partaideak alderdi politikoan sartzen dira, zenbait kasutan lehengo eliz-mugimenduaren azpiegitura erakunde politiko berri baten plataforma bihurtuz. Faktore erlijiosoak elementu aglutinatziale izateari uzten dio. Erlilioaren ordezkoak, nolabait esateko, marxismoak beteko ditu. Ikupegi berri honen arabera, beraz, politika-erakundeak bihurtzen dira gazteriaren hezkuntz leku. Euskal gizartea, bereziki gazteriaren baitan, ezagutzen duen eraldaketa ideologiko honen argitan aztertu behar dira jarraian aipa-



tzena noan arazo politiko hauek.

a) Internazionalismoa nazionalismoaren kontra: 1970eko zatiketa.

ETA erakundeari 1970ean eta ondoko urteetan ETA VI.a eta Saioak taldeen bidetik datorkion eraso dese-gilea ulertu nahi bada, nik uste, bi datu dira kontutan hartu beharrekoak: bata da ETAREN beraren barne-antolakuntzari dagokiona eta bestea, euskal proletargoak daraman borroka-prozesuarena. Bi fenomeno hauek denbora beretsuan dute eragina ETA erakundearen ahu-lezia koiunturalean.

Erakundea diot, lehenik, zeren ordurako ETA izen-

pean bi errealtitate ezkutatzen bait ziren: ETA erakundea eta ETA gizarte-fenomenoa, orain egiaztu ahal izan den bezala, hura baino askoz zabalagoa dena, nahiz eta ñabardura hau sarriegi ahaztu nahi izaten den. Gaur oraino. Kointurala diot, bigarrenik, jarraiko bi arrazoi hauengatik:

Batetik, herritik kanpora begira, une hora modu arras berezi batez ETA erakundeari kritikoa gertatu zitzaiolako. ETAko militante sko, ia gehienak, gartzeletan eta erbestean aurkitzen ziren. Eta erakunde aparatuaen ideologi buruzagitzaz kudeatzen zutenek «1968ko Maiatzak» mugimenduaren giro intelektualean zebiltzan ideien ziprizzinak jaso zituen eta haien eraginak gogohartuta geratu ziren. Nazioarteko proletargoaren protagonismoa fermuki aupatzen zen; baina han zehazki, nik ezagutu nuen Parise harten alegia, demokrazia formalak implikatzen zuen Estatu-batasuna auzitan jarri gabe egiten zen iraultzaren plangintza. Nazio-arazoa, zehazki, burgeskeriaren kume zen, jadanik historian iragan, langile-klasearekin etsaigoan zegoena. Horregatik, «1968ko Maiatzak» ez zeukan, ez 1970. urtearen aurre eta atze hurbiletan, zer ikusi handirik Euskal Herriaren iraultzarekin; baina, bai, izan zuen, eta nolakoa gainera!, zapalkuntzak erbestera bidalitako aparatuko ideologoengan. Honela, ETA VI.a eta Saioak taldekoek, langileriaren internazionalismoan oinarrituta, ETAK gidatutako iraultza bere edukin nazionalaz ga-betu nahi izan zuten.

Bestetik, garaiko krisi ekonomikoak eraginda, langile-borrokaren prozesuan gertakari berriak agertu zirelako. Opus Dei-koek, nazioartera begira erregimen

## Oreretako lekurik atseginenak

## Restaurante Versalles

## EUSKAL SUKALDARITZA AUKERA AUKERAKOA Ezkontzak - Banketeak - Bataioak Aparkaleku haundia, areto egokituak...

Alto Capuchinos, 9 Telfs.: 511021  
512045  
ORERETA

# BAR IÑAKI

## Francisco Gazkue, 1 ORERETA

# Cafetería JULI

## **Biteri Kalea ORERETA**

# Sindikato Taberna

## **Madalena Kalea, 38 ORERETA**

## IRRINTZI TABERNA

Kapitan-Enea, 4  
TH.: 51 10 '86  
ORERETA

# café gao... ¡gao que sí!

C/Amara 18 - SAN SEBASTIAN - Tf. 466418

frankistari itxura demokratikoa eta liberala ematen ahalgindu arren, jadanik 1969ko abenduan egoera ekonomikoa biziki larria zen: inflazioa (prezioak eta soldatik itsuski gora doaz), merkatal balantzearen defizit nabaria (1969an %20 gehitzen da 1968koari buruz), etab. Bainan desoreka, eskaintzaren (populazio aktiboaren) eta eskaeraren (empleguaren) arteko 1973tik aurrera hasiko da nabarmenzen: 1975ean, hala ere, langabezi tasa %2,95ekoa zen bakarrik. Egoera honek langile-herraren baitan, ondorioak zuzenean berak pairatzen zituenetan gero, ezinegona zekarren. Krisi honen ondorioz, 1972. urtetik aurrera langile-grebak eta kale-manifestazioak asko ugaritu ziren Euskal Herri osoan zehar, gordinki Nafarroa eta Araban, hemen hildakoekin eta guzti. Eta langilea ez da kalera irteten bere eskabide espezifikoak soilkoi oihukatzeko, baita, oro har, askatasun demokratikoa, nazionalak barne, eskatzeko ere. Krisiak politizatzen du langileria. Familia inmigratuen be-launaldi berria, herrian erlatiboki integratua, projektu nazionalean sartzen da.

Alderdi politikoaren artean, bi jokabide kontrajarri ziren: batetik, langile-borroka, internazionalismoaren izenean, penintsularra bilakarazi nahi zuena (ORT, ETA VI.a, Saioak, etab., ezker estatalekin batera) eta, bestetik, ETAren langile-frontea, langile-arazoa nazio-arazorekin batera bideratu nahi duena. Lehen esan bezala, ETAren ideologi aparatu nazio-arazoa buruzko ikuspegi likidacionistaz kutsatuta baldin bazegoen ere, ez horrela aparatu militarra. Hau Parisetik edo beste nonbaitetik baino askoz hurbilago zegoen herritik. Honeala, ETAk, 1968an sinbolikoki **Francoren** sistema zapatzailea exekutatu zuen bezala, orain langile-interesen kontrako ordezkaritzat erasotzen du militarki: **Zabala** industrialaren bahiketa eta sindikatu bertikalaren kontrako ekintzak 1972an, **Huarte** industrialaren bahiketa 1973an, etab. Langileriaren defentsa bat izan zen, ezker spaniolak gaizki ikusi zuena, ezarritako sistematikoa, edonolakoak, borroka-mota hori ezin asimilatu duelako, hain zuzen. Nik, **Txomin** baten, **Txikia** baten orduko jokabidea guztiz erabakikortzat jotzen dut, une hartan hil-bizikoa izan baitzen nazionalismoa eta internazionalismoaren arteko kinka ideologikoa. Eta orduan ETAk euskal nazionalismoaren kausa ekintza bidez irabazi zuen nagusiki. Gaur egun ezker abertzalean kokatzen diren asko eta asko, eta zenbait puntakoak, orduan beste nonbait kausitzen ziren. Azken batean, ETA gizarte-fenomenoa ETA ideologi aparatuari nagusitu zitzaien.

Kate luzea ekarri duen ETA militarraren eta ETA politiko-militararen arteko zatiketaz ez dago zer esan handirik. Nik guzti horretan gidaritza mailako arazo pertsonalak bakarrik ikusi izan ditut. Lehen eta orain.

Irautzaren soziologian ezaguna da lege hau: taldea barrutik hautsi. Ahaleginak egin dira horretan ezkerretik nahiz eskuinetik. Orain artean hutsalak gertatu dira asmoak.

#### b) Juancarlismoa eta demokrazia formalaren porrota (1975-1988).

Bigarren erasoa, izugarria hau ere, erreformak planteatu dio euskal iraultzari Gernikako Autonomi Estatutuarekin (1979). Erreformak zepoan harraptu dituenak asko izan dira. Horietako batzu demokrazia formalean gehiegi sinetsi zutenak ditugu, asko berehalako ederki desengainatuta jadanik lehengo bidera itzuliak. Beste batzu, gehienak agian, euskal iraultzan sekula sinetsi ez



dutentzak dira. Bestela esanda: Euskal Herriaren funtsezko arazoak, nazio-arazoa eta langile-arazoa, asumitu nahi ez dituztenak.

Ezker abertzalea bakar-bakarrik geratu zen, euskal alderdi eta alderdi estatalekin kontra, bakarrik indar zapatzaile biderkatu guztien kontra. Bazirudien hasiera harten, Autonomi Estatutuak asko eskain zezakeela, gauzak eginez joan ahala, eguneroko praxi instituzionalak umezurtz bazter utziriko karrasi marjinala berehalako itoko zela. Bainan ez da horrela gertatu. Iraultzaga eta erreforma behera etorri da. Politika instituzionala gauza izan da aparatuak bereganatzeko, baina ez herri-indarrak. Hona hemen kasu nabarmen askoa kulturan ematen dena: aparatuak erakundeetan daude, baina hutsik, indarrak herrian daudelako. HABE sortuko da, baina AEK ez da desegingo. «Argia» aldizkaria inoiz baino osasuntsuago dabil. Eta abar.

Baina zergatik gertatu da erreformaren porrota? Erreformak gauza batzu egin baditu ere (adibidez, Euskal Telebista, autobideak, hirigintz saioak, etab.), oinarrizkoenak konpondu gabe utzi dituelako, hala nola: lan-arazoa, hizkuntza arazoa, nazio-arazoa, etab. Euskal gizarteak dauzkan arazoak erabaki ez, areagotu egin dira. Datu bat aski da honetaz jabetzeko: langabezi tasa %19,4ekoa zen 1983an. Guztira 192.600 lagun lanik gabe. Eta horietatik gehienak gazteak: %21,6 16 eta 19 urte bitartekoak eta %35,3 20 eta 24 urte bitartekoak. Eta gazteria honi ogia kendu eta heriotza ematen zaio: droga hiltzailea. Eta egoera ez doa hobetuz. Langabetuen zifra, gaur egun Euskal Herrian, 225.000 inguruoa da.

Laburki esanda: Euskal Herriari bere etxeko gauzak konpontzeko adinako askatasun politikoa falta zai. Autonomi Estatutua antzu geratu da, eman ez bait du inork ezer ematen ezeren truke. Gutxiago bere lurraldea ongi zaintzen duen Estatu batek. Irautzaren aukera, ordea, herrian baldintza objektiboak aurkitzen dituelako, ez beste ezergatik, etengabe aurrera doa. ZEN plangintza mafiosoaren proba latza gainditua du. Euskal iraultza desegin nahi bada, gaur 1988an, herria bera desegin beharko da. Gernika behin erre zuten, baina ez herria.

**Txomin** baserritarra, beti herri-ahotik oso hurbil bizi izan zenak, egungo politikari askoren antzera intelektualak ez izanik ere, lezio hau ondo ikasia zeukan: alegia, herri-interesak ez direla ez erosten ez saltzen, zaintzen baizik. Irautzaren bide aldapatsuan hauxe da, hain zuzen, ongi ikasi eta hobeto bete behar den lehen ikasgaia. ■

## El nacimiento de una nueva vanguardia

En la situación de desideologización creada por la dictadura franquista, los años 60 marcan el florecimiento en toda Euskadi de una generación de luchadores que, curiosamente, tuvo en Arrasate una representación importante.

M.P.

En el comienzo de la década, la villa cerrajera, como se designaba popularmente a Arrasate en aquella época, es una población media, bastante industrializada, que recordaba todavía haber tenido un cierto protagonismo en la pasada contienda.

Pese al síndrome de la derrota, se mantiene una cierta actividad sindical, fundamentalmente materializada en Solidaridad de Trabajadores Vascos, que se manifiesta en el movimiento huelguístico de los años 56-57 y en la participación de la



clase obrera de Arrasate en las primeras huelgas políticas (como la famosa del 59) que se realizaron a nivel de Estado. Además, al amparo de la nueva situación de expansión económica, un grupo de técnicos surgidos de la Escuela de Aprendices, bajo la tutela de un sacerdote, el padre **José María Arizmendiarrieta**, protagoniza los comienzos de un poderoso movimiento cooperativo que marcaría a la villa en las próximas décadas. Aquí, más que en ninguna parte, se mantiene un cierto debate social, preocupado de materializarse, y han sobrevivido residuos organizativos antifascistas importantes.

### El contexto de la época

El proceso desarrollista que se llevó a cabo en el Estado mediante el plan de estabilización, permite la irrupción y aceleración de un capitalismo todavía más salvaje, que se combina con una estructura socio-política imperialista gran-española, con voluntad genocida para la nacionalidad vasca.

Arrasate, población euskaldun, de unos diez mil habitantes, asiste a un crecimiento económico que, en pocos años, dobla su población y va parejo a un modelo de desarrollo capitalista, basado en la explotación sin escrupulos de mano de obra barata,

un desastre ecológico y urbanístico sin precedentes históricos y el arrasamiento de la lengua y cultura autóctonas.

El avance de este modelo de desarrollo va a agudizar todas las contradicciones sociales y políticas del país y Arrasate va a ser una de esas poblaciones donde se localizan y centralizan todas.

El contexto internacional está marcado por la experiencia americana triunfante de un puñado de guerrilleros que, apoyados por el pueblo, han derrotado la dictadura de **Batista** y quieren hacer de Cuba un país socialista. En el Mediterráneo la guerra de liberación nacional del pueblo argelino contra el imperialismo francés, tendrá una impronta decisiva, sobre los sectores más conscientes de la sociedad vasca.


### La nueva generación

La juventud de Arraste, a comienzos de la década de los 60, va a integrar también aquellos elementos que particularizan a la nueva vanguardia en Euskadi. En primer lugar se trata de una generación que «no ha conocido la guerra», no está, pues, afectada por ella, y su actitud respecto a los ganadores de la contienda está exenta de síndromes de derrota o complejos parecidos.

En segundo lugar, como consecuencia del proceso de transformación socio-económica y proletarización sufrida en la villa, se ha conformado un proletariado joven, que está en la base del despertar del movimiento obrero de la época y se manifiesta en las nuevas y crecientes agitaciones sociales.

Además, el Movimiento Cooperativo está en pleno desarrollo y la lucha de clases se manifiesta muchas veces en la emigración de obreros cualificados y técnicos de las sociedades anónimas a las cooperativas, expresando así su rechazo del orden capitalista y patronal en cuestión. No obstante, este proceso marginaba por una parte a sectores de trabajadores menos cualificados y, por otra el proyecto cooperativista que hablaba de la prioridad del trabajo sobre el capital y de «*crear puestos de trabajo*» en el contexto de un crecimiento brutal e irracional, aparecía un poco estrecho para sectores más ideologizados o confrontados al modelo global de desarrollo capitalista.

El debate social se mantenía tam-



Arrasate, foto retrospectiva de una fiesta vasca del inicio de los 60.

bién en pleno vigor, canalizado por las organizaciones permitidas de la época, como la Organización Obrera Católica de Adultos (HOAC), la Juventud Obrera Católica (JOC), la Juventud Intelectual Católica (JIC), o el Herri Gaztedi, donde juntamente con concepciones que reflejaban la doctrina social de la Iglesia, aparecían otras abiertamente comunistas, muchas veces con ropaje religioso.

El debate estaba, no obstante, limitado por lo que la ideología y la ley de la época permitían y llevó a

los sectores más comprometidos a superar las fronteras marcadas.

Un sector de este proletariado joven trabajaba y estudiaba a la vez en la Escuela de Aprendices o Profesional de la villa.

No alabaremos aquí los sistemas escolares de mucho trabajo y poco tiempo libre, por considerarlos creadores de unidimensionalidad, tecnocracia y desideologización, pero remarcaremos que los sectores conscientes y críticos de este proceso adquirían la conjunción de cierta for-



El contexto internacional de la época, que generó no pocos luchadores en Arrasate, está marcado por la experiencia triunfante de los guerrilleros cubanos que quieren hacer de Cuba un país socialista.

mación técnica y de una gran disciplina.

En tercer lugar, dentro de este proletariado joven había un subsector baserritarra-urbano que, trabajando en el sector industrial, realizaba labores complementarias en el campo. Este subsector, que tenía doble tarea y vivía trabajando, era portador de una gran disciplina y había sufrido intensamente el nuevo modelo de desarrollo capitalista. comprometido e integrado en la experiencia del joven proletariado urbano, había vivido directamente el aplastamiento total económico, social e ideológico que el capitalismo prodigaba con el campesinado minifundista y había sido testigo de excepción del aniquilamiento de la lengua, cultura y civilización ancestrales a la que pertenecían. En este sub-sector, encontramos luchadores de talla, como **Txomin, Peixoto y, en parte, Zabarte.**

La pertenencia a este subsector está en la base de una profunda vivencia que, si bien no tiene las bases culturales para teorizar la nueva situación y desconfía de todo movimiento intelectual externo u ortodoxo (que se evidenciará en la introducción del marxismo), tiene la suficiente percepción de la realidad como para mantener una línea revolucionaria, global y, en general, justa respecto al Movimiento de Emancipación.

#### El desarrollo de ETA

La década se abre con la participación de hijos de la villa en el descarrilamiento de un tren de requetés, en el año 1960, y, más tarde, con los primeros exiliados y caídas: **Etxabe, Gautxo, Edur Arregui, Arizabala, Uribesalgo, etc.** Aquí tenemos ya a los primeros históricos, con resonancia nacional, de los que destaca **J.J. Etxabe**, convertido en responsable del aparato militar durante toda la década de los sesenta.

Evidentemente, este precedente se convierte en referencia para los sectores más inquietos y comprometidos.

En 1963, el Manifiesto de ETA, planteando la Liberación Nacional y Social del Pueblo Vasco mediante la insurrección armada, causa un gran impacto y sirve para captar nuevos militantes. El Manifiesto es bastante impreciso en lo que respecta a la Liberación Social (más que nada es una copia de los argelinos).

En el terreno estratégico, el mani-

fiesto plantea el ciclo acción-represión como el motor del proceso revolucionario.

Más tarde, la estrategia de la Guerrilla Latinoamericana, identificada al Foquismo, complementará el anterior análisis y se entenderá que responde correctamente a las circunstancias de la aparición y desarrollo de ETA.

#### Los años 1964-1965-1966

Estos años son verdaderamente exuberantes en cuanto a conciencia política y movidas sociales, políticas y culturales se refiere. Se empiezan a celebrar los primeros Aberri Eguna (Gernika, Bergara, Gasteiz e Irun-Hendaia). Hay todo un renacimiento cultural, cristalizado en '*Ez dok hamairu*' (con **Lete, Lertxundi, Laboa, L. Iriondo**, en el '*Quosquen Tandem*' de **Oteiza**, en los trabajos de **Basterretxea** ('*Pelotari*', '*Alquezar*'), etc. En lo que se refiere al



**Txomin y Peixoto, dos exiliados arrasatearras históricos, posan con Maite, compañera del primero.**

Movimiento Obrero, descendiendo a la villa de Arrasate, se asiste a una creciente conflictividad social y se participa en la creación de las primeras comisiones obreras provisionales de Gipuzkoa (con un compromiso con la lucha del pueblo vasco muy superior al de las futuras comisiones obreras), aparecen las primeras críticas por la izquierda a las cooperativas y asistimos a todo un proceso autogestionario obrero en la Cooperativa de Viviendas del barrio de Makatxena. En ese momento, en nuestra villa, el movimiento social, político y cultural, así como el debate que deriva, están pujantes.

En este proceso, ETA va defi-

niendo el contenido social de su lucha y se define como una organización socialista revolucionaria vasca de Liberación Nacional. La historia posterior en este sentido está marcada por el proceso de contradicciones surgidas en el intento de resolver correctamente la relación entre la lucha armada y la lucha de masas, así como en el intento de integrar progresivamente un marxismo vivo, aplicado a las condiciones de las luchas de Liberación Nacional, en general, y del Pueblo Vasco, en particular, superando las ortodoxias pequeño-burguesas.

En el terreno estratégico, la guerra de Vietnam vuelve a replantear el debate sobre la estrategia política e, influenciada por esta revolución y se estructura en cuatro frentes: político, militar, obrero y cultural, que en la práctica nunca se materializarían.

#### La experiencia del 'Cabra'

Y en estas circunstancias, una gran parte de la militancia de ETA en la villa es integrada en la experiencia del '*Cabra*'. Esta se centra en tres o cuatro puntos, de los que tal vez el más importante sea Arrasate.

Esta experiencia es todo un ensayo de contestación y superación a la estructura organizativa de ETA, que estaba jerarquizada en base a liberados de herrialdes y comandos en cada pueblo, especializados casi exclusivamente en la política activista.

Se trata aquí de crear estructuras de base, de desarrollar al máximo las iniciativas y capacidades creativas de cada miembro, de desarrollar la disciplina, la entrega y la imaginación; de responder autónomamente (sin depender del liberado) a todas las exigencias que exige la nueva situación: financiación, propaganda, información, acción social, acción militar, infraestructura, etc. Ello permite trabajar en todos los terrenos y multiplicar las relaciones de colaboración con las gentes del pueblo. Esta nueva forma de estructuración entrará en contradicción, pierde espacio político propio y queda así deslegitimada la experiencia. El campo arrasatearra estará políticamente sembrado hasta sus últimos rincones, y los protagonistas de la experiencia dispondrán de un activo que les cualifica. Serán unos pilares sólidos de un proceso liberador que acabará triunfante. ■

# Euskal militante isil baten itzala

Urte bete igaro da Txomin Iturbek Algeriako errepide batetan heriotza aurrez-aurre aurkitu zuenetik. «Nik badakit adiskideak ez direla sekula hiltzen» baieztago du, dardara ahotsean, mutiko garaitik lagun zuenak, Jose Manuel Pagoaga «Peixoto»k. Nola sortzen da iraultzailea? Pertsona bat oso bereizia iruditzen zaigunean, badirudi haren biziaz jabetzeko egarria ase dadin gizaki bezala berezko zituen on-gaitzetatik at, dohain mirakuloso batenbat aurkitu behar dugula. Baino eskura dezakeguna joandakoaren itzala besterik ez da, bere lagun-minak behin eta berriro ohartarazten gaituenaren legez.

P. I.

**A**rrasaten bada mendi magal bat Bakue deritziona. Hantxe elkartzen ziren, igande arratsaldeetan, inguruetako baserritarrak, ume eta guzti, atseden bila. «Sei bat urte izango nituen. Aitarekin joana nintzen eta hara non ikusten ditudan inguratzen Auxpoaltzko **Paulo** bere bi semeekin eta **Pedro**, Txominen aita, atzetik beste hiru seme zaramazkiela. Mendiaren bestaldetik zetozten bost motikoak eta ez ginen ezagutzen. 'A chicos y bandidos' jolasten hasi ziren. 'Hi zer haiz, txiko edo bandido' galdeku zidan batek. Oso herabe nintzen eta gainera jolas hora sekula entzun gabea. Isilik, bada. Orduan beste motiko bat geraturatu zitzaidan, gero konturatu nintzen **Txomin** zela, 'utzi honi bakean' zioen bitartean. Eta muino baten gainean jarri ginen biok, aparte, hitzik esan gabe... Ez dut sekula esan, oso mingarria gertatzen zaidalako, baina hor zerbait egon zen, ezkontza gisako bat, lagun izateko sortuak bagina bezala edo, geure bizitzarako oso importantea izan zen une hora».

Bi kilometrotara zeuzkaten baserrak. Auzo ezberdinan bizi ziren, beraz, eta baita eskola ezberdinetara joan ere. Belarra biltzeko garaian edo elkarlaguntzeko zeratan ez bazeen, gutxi ikusten ziren. Hamaseihamazazpi urte bete arte hartueman eskasa izan zuten elkarrekin. «Ez dut **Txominekin** jendeak uste duen bezainbeste hitzegin, beti berezko gauza izan da gurea. Elkartzen ginen kalean, bakoitza gure koadrilarekin baina tak! elkarren ondoan jartzen ginen beti. 62. Urtean Erakundean sartu nintzenean berehala ohartu zen **Txomin**. Galdezka hasi zitzaidan, zirkatzen, ea lagatzen nintzen, baina



nik 'ez ba', je je. Gero beti esan ohi zidan 'a! hik ez huan nahi nik laguntzea... ikusten duk' ze, nik, durrerabiderik ez nion eman nahi. Bakarrik bilatu zuen bere bidea, differentzia oso gutxirekin sartu ginen, bi urterena edo... Baina hortan ere ildo ezberdina aukeratu genuen».

Motikoak ziren oraindik bere he-

rritik bost gazte alde egin beharrean suertatu zenean. **Gautxo**, Arizabala, **Arregi**, **Juan Joxe Etxabe** eta **Uribesalgo** ezagutzen ez zituenik ez zen Arrasaten eta, beraz, ehundalakoa izan zen herritarrentzat ihes egin premiatu hura. Noski, eskola gira ere iritsi behar oihartzuna... «Gu ginen gerraren eragina zuzenki

## Euskaldunak ginela ondo genekien, askoz gehiago ez baina»

eta zeharka ezagutzen ez zuen lehen belaunaldia, arraultzatik irteten. Beldurak eta bizirako umoreak —berezko gauza guzti horiek— es-neetatik pasatzen direla uste dut. Famili biak abertzaleak ziren, nolabait, eta zerbaít entzuna genuen, horrelakoak aipatzen zirenean sukaldetik bidentalzen bagintuzten ere. Ihes egin zuena oso jende herrikoia zen, eta jendeak, isilka baina, hortaz hitzgiten zuen. 'Euskaldunak direlako... ez dute gauza txarrak egin baina... guardiazibilak atzetik dituk eta'. Guzetzat, motikoentzat alegia, lur-ikara gisakoa izan zen, gure baitan zihurtasun bat sortarazi zuena: 'Hor baduk zerbaít, urrutti, Farntzian edo...' Misterio izugarria zen».

Beziak irekiten hasi zitzakien. Motiko borrokak baretzeko adina garrantzia zuen ezagutza horrek. «Euskaldunak ginela ondo genekigun, askoz gehiago ez baina —beno, gu hori esaten dudanean nirea besterik ez diot, besteena besteak esan behar—. Gu baserritarak ginen, 'casero borono' deitzen ziguten kaleria jaisten ginenean. Bostehun metrotara ikusten gintuzten, geure galtza luze, ile-motz e.a. Kristoren borrokak egin behar izaten genituen geure burua defenditzeko».

Baserritar eta kaletarren arteko lehia biguntzen, eskolak zerikusi handia izan zuen. «Aurrera egiteko gai ginela konturatu ginen. Ni erdi mailako ikaslea izan nintzen baina Txomin, ez, lehenetarikoa zen hura bere kurtsoan, hori badakit. Hortik aparte, kiroletan, eta umorean batez ere, ez ginen atzean gelditzten, eta errespeto bat irabazi genuen. Maitatuak izaten hasi ginen... Eskola guztia erdaraz zen, bistan dena, baina gure artean euskaraz aritzen gintunen. Gauza da koadrilak baserritar eta kaletarren artean osatzen zirela».

Euskal giro gutxi zen garai hartan... «Eta bizi bizirik zegoen mako eta euskaldunen arteko lehia. Igandero, lehenxeago edo beran-

duxeago, borrokalditxo bat egiten zen. Je, je... Futbolinean bultzatu edo edozein aitzakiz di-da! segituan. Ordurarte beti kantatu ohi ziren ranxerak eta beste abesti eraldunak. Poliki poliki lehen kanta euskaldunak kaleratzen hasi ziren, klasikoak, 'Boga-boga', 'Ara non dira' eta horrelakoak, baina euskaraz. Elizaren aldetik eta baita zenbait herritarrenetik ere badago uztartze bat, euskal giro oso primarioa sortzea. Eta, hain zuzen, hori gainditzen doan heinean itzaltzen da kanpotarrekin genuen lehia».



Hirurogeigarren hamarkadaren hasieran ospatu zen Arrasaten lehen Euskal-jaia. «Gazte koadrilek antolatu zuten jai hori. Nesak eta gu era bizi batetan elkartzen ginen lehen aldia zen. Ordurarte ez zen harremanik geure artean. Oso herabe ginen eta nahiz dantzan elkarrekin egin —oso aparte, jakina— gure hartuemanak zeharo azalekoak ziren, ni behintzat ez nintzen sekula gustora geratu harreman horiekin. Beraz, Euskal-jaia zela eta elkartu behar izan genuen, elkarrekin lan egin, elkarrekin kantuak ikasi, sexu bien arteko talde biziak osatu. Euskal-jaia ekarri zigun aberastasunik handiena hori izan zela uste dut. Karrozak edo prestatu behar genituen. Txomin eta horiek atera zuten lehen saria, guk bigarrena... orain, egia esango dut, juradoan egon banintz Txominen koadrilari emango nion lehen saria, oso ideia polita eduki zuten».

Koadrilak gizartearren isipilu ziren, euskaldun eta eraldunen artean osatuak, alegia. «Gehiago esango dut. Nire komandoan lau ginen, eta horietatik neu bakarra euskalduna. Taldeko tontuena nintzen. ETAn sar-

**Pintadek izugarritzko oihartzuna zuten zeren eta, gerra batek hainbeste-rainoko etsipenean sartuta utzi zuen herri baten burua altxatzen hastea bait ziren»**

tzerakoan pentatu nuen 'orain bai, orain zerbaitetan izango nauk nagusi. ETAn behintzat euskara...' Lehendabiziko zita jarri ziguten Bergaran, oroitzentzat naiz, eta hor azaltzen dira bi mutil. Nik, tak! euskaraz eta 'estoy aprendiendo pero aún no sé' erantzuten ez dit ba? 'La hostia, hemen ere ez?' je, je. Bestalde, eskola profesionallean genbiltzan baina ez genuen formazio handirik. Hogeita lau urte bete arte, teknologiazkoak eta aparte utziz, bakarrik bi liburu irakurri nituen, ikusi zelako formazioa izango nuen: Erakundeak emandako liburu zuria eta Frank Fanonen 'Los condenados de la tierra'. Baina erakundeak ematen zigun materiale teorikoa nik behintzat ez nuen tutik ere ulertzen, ezer ez baina. Komandoko besteak bai, eta han aritzen ziren esplikatzen; ez da ba harritzekoa neure burua tontzat edukitzea, ezta?».

Hain ondo atera zitzaien Euskal-jaia ze, adoretsu, leku guztietan eta ahal bezainbeste antolatu behar zirela pentatu zuten.

«Eta handik urte betera izanak gara, gu geu, Deban Euskal-jaiei uko egiten zieten oktakibak botatzen. Hori izan zen, behar bada, neureganatu nuen lehendabiziko eboluzio teorikoa —sozialismorako ez da gutxi geratzen, e? ja, ja—. Konturatu ginen. Erakundearen bitártez, kulturalismo batetan erortzen ari gina, Euskal-jaiek, heurak berez, ematen genien zentzuarekin, ez gintzutela urrutira eramango, aterabiderik gabeko ilusioa zirela, jendea goxatu bai baina lokartzea zutela. Eta, hain zuzen, hortik dator oraintxe arte eduki dudan ezeztatzea zentzugabeko bat. Euskal jazkerak, folklorismo guztia... fuera! Duela bi urte arte nik trikitixa ez dut maite izan. Baina, aldi, Txominek ez, Txominen eboluzioa ezberdina izan zen».

Baina lagunaren barruaz ez du hitzegintz nahi... «Txominez, bere tripetaz, langeroso atxematen dut hitze-



gitea. Norbera bere burua interpretatzeko larri ibiltzen bada, nola interpreta beste batena...».

**Peixoto 'Cabra'** aldean ibili zen. **Txomin**, berriz, edozertarako gizonez zuen ETAK garai hartin. «Zer egiten genuen? Ba, gure artean bildu eta eztabaideatu —ikurriña egiazki nola zen inork ez zekien—, noizbehinka ekartzen zizkiguten oztabilak bota, pintadak egin... baita jendea kaptatzea, geureganatzea. Oihartzun izugarria zuten pintadak ze, gerrabatek hainbesterainoko etsipenean sartuta utzi zuen herri baten burua altzatzen hastea ziren. Nolabait esateko, sentitu zen borroka armatua beharrezkoa zela, hori gabe ez zela herririk askaten ahal. Lehen atrako txikiak, bonbatxoak —bi aldiz hautsi zituzten gerran hildakoaren oroitarri jarritako plakak—. Borroka armatuaren aztarnak. Eta gainditze hortan konplizitateak sortu ziren. Gurasoen aldetik ere. Amak, tak! gordetzen, aita enteratu gabe. Eta **Txominen** kasoan berdin, nahiz eta aita zalea zen... Belaunaldien artean genuen leize hori apurtzen hasten da».

**Txabi Etxebarrieta** hil zuten, eta haren omenez lehen mobilizazio hirritarrak ezagutu ziren. «Ikusi behar dugu 1512. urtetik honera zenbat odol isuri den. nazio kontzeptua Irautza frantsesaren emaitza izan bazen ere, nazioak lehengokoak

dira, eta bitarte hortan odola isurida irautearen —Fueroak, kultura- eta askatasunaren alde ere. Herri baten irauteak zerga bat eskatzen du, odolezko zerga, eta iraun badugu da odolezko zerga hori egon delako. Horregatik dago, gaur ere, hazi hori botatzeko ahal. Gure dohainik handiena bihurtzen ahal da, une batetan, gure makurrik handiena. Ez dago garbi, oraindik bederen, beti askatasunaren alde borrokatu dugun, baina garbi dagoena da, behintzat, irautearen alde borrokatu dugula. Bestela demonstratu behar da, baina irautearen alde egin dela dudarik ez dago. Gure izaita den bezala errespetatua izan dadin. Eta iraute hori zihurtatzeko nahitaezpadakoa da tresna bat, Estatua; ezin ba tresna hau eraiki in-de-pen-dentzia gabe».

Euskal Herriaren askatasuna lortzeko azken belaunaldietan borrokatu dutenen artean hiru fase eman dira, bere usteaz. «Kartzelaraztea izan zen lehena, ondorio oso baikorrak zituen honek herrian. Bigarrena, berriz, 1970. etik 1975. era eman zen eta, bistan da, hori ez dut nik sekula entzun ahal izan, astakeria izango baitzen entzutea bera, baina sentitzen zen: hil beharra, odola bota gabe ez dela aurrera egiten ahal. Hiltzeko geure burua ez genuen jartzen, ez, baina izpirituan bai. Oain hirugarrrena gertatzen ari da, irabazi behar

dugu fasea. Ahal bezain gutxien kartzelara, ahal bezain gutxien lurpera. Efikaziaren garaia».

Eta borrokalari horien betebeharra honela ikusten du. «Herriaren sekretario txiki batzu baizik ez gara. Belarria jartzen dugu eta biltzen duguna, ahal den heinean, ordenatzen salatzen gara, ulergai jartzen berriz ere, pa! botatzeko. Ulergai jarri eta bota dugunean herriak erantzuten du: bai. Hori da gure lana. Zerbait egin badugu hori da, baina ez askoz gehiago. Herriaren gogoa ulertu, askotan isilka pasatzen den gogo hori.

**E**z dago garbi, oraindik bederen, askatasunaren alde borrokatu dugun, baina garbi dagoena da, behintzat, Euskal Herriak irautearen alde borrokatu dugula»

Eta ni erortzen ahal naiz leize beltean neure burua ikusten badut herriaren gidari, neure lekutik irten naiz. Sekretario izaiten ahal naiz. Gure gizartearren organizatzearan ez dago lehendakaririk, ordezkari alda-korrik eta ez binkulan teak baizik».

Hogeita bost urte bete dira ETAK sartzea pentsatu zuenetik. «Hamazortzi urterekin dena da itxaron eta, aldi berean, ezer ez. Dena da emateko eta ez dakizu zer eman dezakezun. Zer esan nahi zuen gurezat horrelako zerbaitetan egoteak? Arnasa hartzea. Nora iritsiko ginen eta nola? Antzik ere ez. Baina gaur egun ere, hemendik hamar-hamabost urtera nola egon ginteze jakiterik ez dago, nire ustetan... Ezartzen dugu askatasuna, independentzia, meta batzu balira bezala. Independentzia meta bat da gaur, gero erabiliko den tresna. Eta askatasuna ez da meta bat, bizia egiteko modu bat baizik. Biziaren aurrean nor bera izateko ahal. Nor bera ez da izaiten ahal nor-artearen gabe, eta nor-artearen izaiten horrek eskatzen du nor bera moztea. Baina ez da meta bat, ez da hara iritsi eta gero 'a mí me pone de jefe de aduanas' e! Eskema horrek eragin gaiztoa izan dezake geroari buruz. Askatasuna ez da jantzi eder bat. Askatasuna ezpata bat da. Beharko da kontuz erabiltzen ikasi ze, galtzen ahal dugu, herri batzu betirako itzali direla, ez daudela gehiago, jakin behar dugu».


Eta poetak datorrkio burura. «Behar bada hobekien poetek azalzen dute dagoen tripako min bat, 'Anai maiteok/eutsi borrokari/inoiz hilko ez den/euzkoen amari' zioen Lauaxetak, hots, euzkoen amarik ez da izaiten ahal borrokari gabe. 'Este es el árbol/el árbol del pueblo/de todos los pueblos/de todos los pueblos/de la libertad/de la lucha' esaten digu Nerudak, eta irakur dezakegu ¿qué es la libertad? la lucha... Norbaitek esaten ahal du konfunditzen naizela. 'Ez Peixoto, hori ez duk hola'. Hori da dialek-

**Negoziazioa luze joango  
ote da? Nik uste  
baietz, nahi genukeen baino  
lezeago, zihur»**

tika. Batzuk uste dute dialektika partido baten barruan ematen dena dela. Ez, dialektika biziaren jokamoldea da. Beno, nire lausotik ikusten dudana esan behar dut...»

ETA eta Estatu espainiarren arteko negoziatioaz duen ikusmoldea eskatzen diogu. «Dakidanez gaur ematen den borrokaren gainditzea duela hamabi urte Estatu espainiarren eskuetan dago. Euskal Herria den bezala onartzea eskatzen du horrek. Eta Euskal Herriko gehiengoak eman zuen ezetza, eta bortxaz earri zaio zerbait gehiengo horri. Mundu honetan den gauzarik ederrena, amodia egitea, bortxaz egiten deunan gauzarik tristea da. Ez, bortxaz ez dugu nahi... Hori luze jongo ote da? Nik uste baietz, nahi genukeen baino luzeago, zihur».

1968. urtean Peixotok eta Txominet Arrasate utzi zuten. Misolari joan zen gure mintzaidea. Alde egin beharrean izan zen Txomin, bere urtebetetze egunean, abenduaren 8an hain zuzen. Hiru urteren itzulian elkartu ziren berriro. «Iparraldera joan eta ikusi nuen lehena bera izan zen. Giro nahasi samarra zegoen errefuxiati artean, une hartan, eta poliki hurbildu nahi izan nuen. Txominet eta biok hitzegintz ginen piska bat ere... Handik 15 egunera telefonoz deitu nion 'hi, ni hirekin nioak', eta gaur arte. Garrosen ari zen zerra (inbernadero) bat monta-



tzen eta hiru urtez berarekin bizi-  
zera eta lan egitera joan nintzen.  
Eskuin-ezker bizi ginen Eustakio eta  
haren emaztearekin. Errefuxiati gor-  
putza txikia zen orduan... 'Anai  
Artea' ere baze... Bertakoekin, be-  
rriz, hartuemanak jende askorekin ez  
genituen baina zirenak naturalak eta  
nahiko sakonak iruditzen zaizkit. Oso  
murriz bizi ginen ze, bestalde, se-  
nideak ezik inor ez zen etortzen; ho-  
nunzta jendea hurbiltzen hasi zen  
Carrerorenaren ondotik».

**Txomin** jendarterako urrezko zela dio. «Jendea erakartzeko ehun-  
dalako dohaina zuen. Begira, as-  
kotan izan gara espultsatua. Behin,  
hamalau edo baginen trenaean gihoa-  
zenak, departamentu bakoitzean  
errefuxiati bi eta lau polizi. Ni **Txom-  
inekin** batera nindoan eta hura  
'eta, zenbat nobixa dituk, e?' polizi  
bat zirikatzen. Bordelera iritsi gine-  
nerako kristoren gosea genuen guk.  
Eta **Txomin** 'zer, la Gran France  
eta gu gosez? bokadilo bat edo zere-

dozer gizonak... Tristeak zarete, e'. Bainan poliziak ez ziren lehunten. **Txominek** orduan 'nire ama bisitazera datorrenean hau esan beharko al diot, la Gran France-n gosez hilten gaituztela? Nire ama gaixoa...'. Beno, azkenean bokadiloak, zerbezak eta guzti lortu zituen denontzat. Bidaiaaren beste pusketa kantu batean egin genuen... Parisera iritsi eta furgonetetan sartu gintuzten beste estazio batetara eramateko. **Txomin, Kortatu** eta hiruok elkarrekin gindoazen. Ehundalako zirkulazioa, semaforoak... mantso. Jotzen du **Txominek** kristala eta 'e, monsieurs, la pipopet, pour les basques, est-ce que nous ne sommes pas importants?' Eta haien 'zer dio honek ordin?'. **Txominek** 'Jartzeko pipopeta, pi-po, pi-po, pi-po'. Santiamen batetan iristea lortu genuen».

Elkarrekin bizi, elkarrekin ibili... amaika pasadizo kontatzerik du

**Peixotok.** Bainan lagunaren barne kezka eta ikuspegiz galdezen diogunean, aurpegia iluntzen zaio. «Hurbiltzen ahal gara baina ezinezkoa da ez den baten ikuspegia edo bilakaera politiko zehatza ematea... Nolabait, laburki esateko, iruditzen zait euskal askapenerako oldea hiru ardatzen artean gauzatzen den zerbait dela: Borroka egiteko kuraia, zuzendaritza batek eskatzen duen disiplina, eta olde herrikoiak eskatzen duen irekitasuna. Berriz ere iruditzen zait oldeko partaide guziok badugula hiru gauza horietatik zerbait baina, nago ez ote zen **Txomin** hiru eremu horietaz jantziena. **Txominek**, irrisolaz, esan ohi zuen Euskadi askatu batetan igande eguerdian herriko plazara joan behar zela, praka milrayasekin, alkondara zuriarekin eta alpargataz joan ahal izateko. Zorionaren itxura hortan aurkitzen zuen, eta geroari eskatzen dioguna, du-

darik gabe, zoriona da. Hor dago **Txominen** abilezia, lehengoa gaurkoratzean, ez du inoiz ezeztatzen. Hark bazeien ondo zihuraski hori ez zela inoiz emango baina, haurzaro roko oroitzapenak horiexek zituen. Zerbait kendu badigute euskaldun suna da, **Xalbadorrek** 'Odolaren mintzoa'n hain ondo adierazten duen bezala. Eta guk bi bide jarraitu behar izan ditugu: geure barne-min hori arrazoiaren eremura eraman eta hitzatan ezarri; eta, bestetik, arrazoiaren eremutik bihotzera iristea».

Eta elkarren artean ulertu ziren eran, isilean kasik, lagunaren aztarna urratzen saiatzen da. «Errefuxiatu artean maitatu netarikoa izan dela dudarik ez dago. Eragin handia izan duela ere bai. Errefuxiatu gisa urre asko zeramatza lako, Ipar Euskadi ondo ezagutzen zuelako eta, bereziki, jendearekin siko logia handia zuelako». ■



## Viaje a Madrid con la Real a la Final de Copa

Galicia-Portugal 49.900 ptas. salida: 26/3 y 2/6	Italia a fondo 61.900 ptas. salida: 26/3	Galicia 20.800 ptas. salida: 31/3 y 1/6	París (h. céntrico***) 22.750 salida: 31/3 y 1/6
Italia (avión+bus) 69.500 ptas. salida: 26/3	Grecia-Atenas 49.100 ptas. s/. Barcelona 21/3 y 4/4	Lisboa 119.900 ptas. salida: 31/3 y 1/6	Portugal 37.800 ptas. salida: 27/3 y 29/5
Países Bajos y Rhin 73.800 ptas. salida: 26/3	Costa del Sol 19.900 ptas. salida: 31/3 y 1/6	Suiza 25.300 ptas. salida: 31/3 y 1/6	Londres 44.300 ptas. s/. Vitoria 31/3
Suiza-Tirol-Viena 75.900 ptas. salida: 26/3	Cuba (Circuito) 146.100 ptas. salida: 27/3 Guana: «Al corazón de Cuba»	Bruselas 24.900 ptas. salida: 31/3 y 1/6	Madeira 611.300 ptas. s/. Bilbao 31/3



# FIAT-eko AUKERA

## UNO

FIAT UNO 45 STING.....	997.230 pta.
FIAT UNO 45 FIRE 3 ate.....	987.255 pta.
FIAT UNO 45 FIRE 5 ate.....	1.116.930 pta.
FIAT UNO 60 S 3 ate.....	1.154.170 pta.
FIAT UNO 70 S.L. 5 ate.....	1.300.470 pta.
FIAT UNO 70 SX 3 ate.....	1.317.760 pta.
FIAT UNO TURBO I.E.....	1.590.410 pta.
FIAT UNO 60 D.S. 5 ate.....	1.369.630 pta.



## CROMA

FIAT CROMA CHT.....	2.356.490 pta.
FIAT CROMA 2.0 I.E.....	2.782.090 pta.
FIAT CROMA 2.0 J.E. TURBO.....	3.315.420 pta.
FIAT CROMA TURBO DIESEL.....	3.050.750 pta.



## REGATA

FIAT REGATA MARE.....	1.200.000 pta.
FIAT REGATA 70 S.....	1.404.210 pta.
FIAT REGATA 100 I.E.....	1.792.570 pta.
FIAT REGATA DIESEL SUPER.....	1.751.340 pta.
FIAT REGATA WEEKEND 100 I.E.....	1.872.370 pta.
FIAT REGATA WEEKEND D.S.....	1.980.210 pta.
FIAT REGATA DIESEL SUPER TURBO.....	2.026.650 pta.



## DUCATO

DUCAUTO F-13.....	2.281.200 pztz.
DUCAUTO F-13 Sapai altuko.....	2.379.660 pztz.
DUCAUTO Bolumen handikoa.....	2.433.520 pztz.
DUCAUTO COMBI-6.....	2.330.000 pztz.
DUCAUTO Txasis Laburreko.....	2.156.880 pztz.
DUCAUTO F-18 Turboa.....	2.240.880 pztz.
DUCAUTO F-18 Turboa-GV.....	2.526.480 pztz.

## AUTO ADARRA


### BANATZAILE OFIZIALA

Gran via, 7-Telefonoa 288983// Jose Elosegi hiribidea, 107

JOMIAL. Azpeitia—Telefonoa: 81-24-91/ALDABE. Irún—Telefonoa: 61-38-44/IZARRA. Ibarra, Tolosa—Telefonoa: 67-00-70/SAN CRISTOBAL. Beasain—Telefonoa: 88-39-08/NIETO ANAIAK. Beraun-Renteria—Telefonoa: 52-52-90

## MATRIKULATU ONDOKO PREZIOAK

**FIAT**  
PUNTAKO TEKNOLOGIA



R. S.

**T**xominen alderik ezezagunene-tarikoa bere kirolzaletasuna dugu... besteak beste, UCEA, UDA eta "Mondra" futbol taldeetan atezainarena egin zuen. Txominen azken entrenatzailea **Jesus Moreno** izan zen eta hau, kirolari dago-kionez, haren aitatzat jo ohi da. Txomin atezaina, pertsona eta militante abertzalea ondotxo ezagutzen zuen **Morenok**.

— "Mondra"ra erakarri baino lehen, Txomin ezagutzen al zenuen?

— "Bai, auzokoak ginen, haren trajektoria guztia ezagutzen nuen nik".

— Zergatik deitu zenuen?

— "Oso portero ona zelako... eta pertsona bezala be oso ona... garbia".

— Txomin "politika"n zebilela al zenekien?

— «Bai, bai. Lehen, gainera, orain baino askoz gehiago ikusten zen. Jendea portalean eta biltzen zenez, gutxi gora behera bazenekien zeintzuk zeuden sartuta. Mutilek beti propaganda zeramaten poltsikoetan eta guardia zibilak entrenamendu guztieta zetozen...»

— Horri buruzko pasadizoren bat kontatuko al diguzu?

**M**utilek beti propaganda zeramaten poltsikoetan eta guardia zibilak entrenamendu guztieta zetozen»

— «... Etxebarrieta hil zuten egunen Pasaien jokatu behar genuen. Hemen, Arrasaten, sei eta huts irabazia genuen partidua baina hor, bueltan, 8 eta zero galdu. Porteriara hurbiltzen ziren baloi guztiak, sarrera... Txomin oso urduri zegoen. Esan nion: "Txomin, jertsea zulatuta al daukazu? Ba, konpontzen ez baduzu, datorren domekan bestea ipini beharko dut". Hurrengo partidua hasi baino lehen berriro ere galduet nion: "Jertsea josi al duzu?" Txominek berak esan zidan bestea ipintzeko. Baina, partiduan geundela, bat eta huts irabazten, atezainak kolpe bat jaso buruan eta Txomin urten beharrean aurkitu zen. Izugarrizko partidu ona egin zuen, ikusteko! Pasaikoarekin konparatuz gero, sinetsi ezinezkoa!»

— Aitortu al zizun 'gerran' zebilera?

— "Bai, hanka egin behar zuen egunean bertan, 1968ko abenduan, ondo baino hobeto dut gogoan... Ni Orduñatik nentorren, lagun baten aitonaren hiletan parte hartu ondoren, eta andreak esan zidan: "Txomin egon da hemen, zutaz galdezka, bihar ez dela etorriko eta zuk badarizula esan dit". Harrituta gelditu nintzen. Gero etorri zen berriro eta, orduan bai, den dena kontatuz zidan".

— Atzerrian zegoela ikusteko aukera izan duzu?

— «Bai, bai...»

— Merezi al du?

— «Bai, bai, bai... bakoitzak 'politicamente' bere zera du, ezta? Baina Txomin gizon jatorra zen, on ona sentidu guztieta. Horrek Euskadi-rengatik egin duen lana ere... 'desinteresadamente'... On ona». ■



LEDESMA, 12 - TEL. 424 98 78  
48001 BILBAO

**UNIVERSAL**  
DISCOS - LIBROS - COMICS'

DISCOS 2.ª MANO, NOVEDADES, JAZZ,  
IMPORTACIONES, INDEPENDIENTES.

LIBROS, COMICS, FANZINES, COMICS  
2.ª MANO y CURIOSIDADES VARIAS.

**UNIVERSAL**

# Fray Rufino, elizgizon baten ikuspuntua



K. O.

Fray Rufinok, 1929an jaiotako Eskoriatzarra, urte asko eta asko eman du Arrasaten. Txomin mutikoa zela ez zuen ezagutu, baina ondo baino hobeto daki, «besteek esanda», «okerra» zela, oso okerra. «Ezin zuen mugitu gabe egon... mutikoa izateko okerra izan behar ei da eta, horretan behintzat, ondo kunplitu zuen bere ofizioa». Hori bai, kantore ona zela, «oso belarri onekoa», ezin du ukatu.

Txominen belaunaldiaren gatzarao eta bereziki kontzientzi askoren esnale bilakatu omen ziren euskal jaiak ea dituen gogoan galdetu diogu priale lagun honi... «Bai, bai... akordatzen naiz. Ondo, gainera. Txomin eta besteek lan ederra burutu zuten. Gero euskal jaiak debekatu zituzten. Ez dakit zergatik...»

Txabi Etxebarrieta hilketak euskal gizarte osoa errotik astindu zuen eta elizgizonek —herriarekiko harremanetan egunero zeudenak bederatzi— ezin zuten egoeratik atxelatutu. Hil-meza antolatu zuten Arrasaten... «Hura izan zen iskambil! Obispua, gobernadorea alkateak... den denak deika eta galdezk... Etxebarrieta aldeko meza 11etan egin behar zen eta, hamarretako mezetatik jendea urten zean, eliza guardia zibilez inguratu zegoen. Lagun bakar bat gelditu zen barruan, koruan, eta guardia zibilek inor pasatzen utzi ez zutenez gero, meza eman genuen, entzule ba-

karra zegoelarik». Manifestaldiak ere egin ziren, «ikaragarrizkoak», Fray Rufinoren hitzetan, eta, bestetik beste, «Bixente Garmendia orduantxe harrapatu eta desterrura biderali zuten».

**Euskal Herria maite zuen, Euskal Herria defenditzearren borrokatu zuen»**

Txomin Iturberi ere laster egoikitu zitzaiion hanka egiteko ordua. Fray Rufinok egun hori «ondo asko» du gogoan... «Beldurra galanta zegoen orduan zeren eta edozeratik ere izugarrizko palizak ematen zituzten, ikerriñatxo bat edozein tokitan jartzeagatik ere. Jose Luis Mondragon, esate berako, beranduago Hondarribian hil zutena, horrexegatik ihes egin beharrean aurkitu zen. Elgoibarko ez-dakit-non ikerriñatxo bat jarri, lagunak harrapatu eta harek, beldurrez, hanka egin».

Baina, mugaz harantz egon arren, Fray Rufinok ez zuen Txominekiko

harremana galdu. «Joaten nintzen mutilak saludatzen, mondragoetarrak, batez ere. Behin, Baionako 'Udalaitz' tabernan afaltzen geundela, oso umoretsu, esan zidan: 'Rufino —oraindik ere habitua neraman nik—, Euskal Herrian euskal prialeak behar ditugu. Beraz, ez begiratu atzera eta segi gero euskal priale ona izaten. Despedidan, den denok eskuistik helduta —koadrila haundia juntatu ginuen—, hasi zen abesten Arantzazuko kantuak...»

Baina zorigaitzoko berria noizbait iritsi behar... «Ni kalean enteratu nintzen Txomin hilda zegoela, izugarrizko kolpea jasan nuen». Eta ezinbesteko galdera bat luzatu diogu Fray Rufinori... Txominen hiletan ibili zinen, ezta? «Hombre! Ederra izan zen; jende pilo eta jende formal, e? Asko eta asko, negarrez. Ez da harritzeko, halako mutil jatorra... Emozionantea izan zen hura».

Fray Rufinok ez du zalantzak: «Txominek Euskal Herria maite zuen, Euskal Herria defenditzearren borrokatu zuen. Hortaz seguro nago. Beste asko be bai, holaxe, fede onez, lanean ari dira. Hori bai, heriotza, Bartzelonan jarritako bonba... Bakea lortu behar da eta horretarako, Francoren denboran bezala, euskaldun guztiok bat egin behar dugu. Zenbat partidu dago gaur Euskal Herrian? Ez, ez... denok elkartuta jokatu behar dugu... kalean euskaraz egin... ikastoletan euskaraz irakatsi eta, kalean, erdaraz? Zer Euskal Herri da hau?» ■

# Xabier Zubizarreta, Arrasateko alkate abertzale eta ezkertiarra

R. S.

**X**abier Zubizarretak, gaur egun Arrasateko alkate, zi-negotzi lanak egiten zituen Txomin hil zeneko garaien. Hari egokitut zitzaiion, martxoaren 8ko omenaldi jendetsuan, Aljerian eroritako buruzagiari azken agurra ematea arrasatearren izenean... «Nere ustez, hori izan zen Euskal Herriko historia modernoaren egun garraitzitsu bat eta, pertsonalki, inoiz bizi izan dudan unerik hunkigarriena, ahantzi ezina. Orduan esan banuen ere, orain errepikatuko dut: Txomin Arrasatetikgauez ihes egin beharrean aurkitu zen eta egunsentian itzuli itzuli zitzaigun, hau da, ilunpean joan eta, itzuli denerako, argi pittin bat ekarri du berekin».

Zubizarretak dioenez, gazte gaztetanidik ezagutu zuen Txomin. «Ni Aretxabaletakoa naiz eta bera Arrasateko baina, futbol zela eta, askotan zebilen handik. Baina ezagutza pertsonala Iparraldean egin nuen. Bertan ezagutu nuen nik dexente ongi... nolakoa zen, nola jokatzen zuen eta zenbat balio zuen...»

Arrasateko alkateak hildako ETA-kideren irudia eskaintzen digu: «Gizon erabat irekia eta frankoa zen. Horixe zen bere ezaugaririk nabarmena eta seguruasko horregatik iristen zen horren erraz jendearen gana. Jende askok, ezagutu ez ezik, preziatu ere egiten zuen Txomin, nahiz eta politikoki beti ados ez egon».

Behin baino gehiagotan entzun dugu Txominek ez zuela bere burua

agintaritzat jotzen. «Ez, ez... Bera ez zen besteak gidatzen zituen nagusia. Txomin, batez ere, ekintza-gizon bat izan zen inor baino lehen gauzak egiteko prest zegoena. Zerbitzu-borondatea barne barnean zeraman sartuta. Neuri ere berak lagundu zidan ihes egiten Francoren garai hartan.

**T**xomin Arrasatetik gauez joan zen, ilunpean, eta egunsentian, argi pittin bat ekarriz, itzuli zitzaigun»


Segoviako ihesaren berri jaso zuen mementuan —badakizue polipiliek prestaturiko zerbaite zela— mugaino joan eta hor ibili zen gora eta behera ea zerbaite egin zezakeen».

Hil ondoren, maizegi entzun dugu ETAKiderik negoziatzaleena zela, «bigun» eta «gogor»en arteko liskarrakareagotu nahiz, nonbait. «Txomin ez da beste batzu baino negoziatzaleagoa ezta negozazioaren aurkakoagoa ere izan. Ez da ahula izan ETAKoen artean. Txomin militante bat izan da, bitzitz guztia Euskal Herriko askatasunaren aldeko borrokan eman duena. Ez negoziatzaleena ezta bigunena ere, be-

rriro diot, militante zintzo bat baizik, kontsekuente, oso kontsekuentea, eta batzutan gogorra, oso gogorra. Hori bai, negoziazioaren aldekoa genuen Txomin... Nere ustez, jende gutxik jarriko du dudan gerra hau tratu batetik bukatu behar dela. Gobernu zentralak bigarren pausua eman behar du zeren eta lehenengo pausua ezker abertzalearen aldetik milaka aldiz, etengabe, eman bait da. Horregatik, azken asteotan ireki den negoziazio prozesua oso interesgarria iruditzen zait».

Omenaldiaz ari garenez, ezinbesteko galdera luzatu diogu Xabier Zubizarretari: Zein da Txomin egin dakoileen omenaldirik onena? «Dudarik gabe, bere helburuak defendatzen jarraitza, hots, hitz gehiegi egin gabe, lanean segitza, etsi gabe. Txominek eta Txomin bezalakoek egindakoa ez da alperrik izan, asko zor diegu...»

Eta horrela uzten dugu Xabier Zubizarreta, duela hoge bat urte borrokan hasi ziren horietariko bat gaur egun Arrasateko alkate bi-hurtua. «Alkatea zein den gutxienda. Garrantzitsuena da lehenengo aldiz Arrasatek —eta Euskal Herriko beste zenbait herrik ere— alkateza abertzale eta ezkertiarra duela, orain dela hoge bat urte inork pentsatu ezin zuena eta, are gutxiago, gure artekoak. Hori ere borroka egin eta eginten dutenei zor diegu».



*Alfa: la pasión de conducir*

**TALLERES MIKEL HUARTE**

AGENCIA OFICIAL

Vázquez de Mella, 13 - RENTERIA



## GALERIA DEL LIBRO

ERCILLA, 35 - TELF. 4436399  
BILBAO

CAFETERAS

**N** nuova  
simonelli


1.ª MARCA EN ITALIA

BANATZAILEA:  
RAMBUR EXPRESS, S. A.

ORERETA

Diputazio Plaza, 2. Telefonoa: 512242

**Hemen Donostian  
zur etxeko kafea**



**LA CASA DEL CAFE**

San Martzial, 19 - DONOSTIA

Telefonoak: 42 45 12 - 35 49 14

X A R I B A R I



Legazpi Bi - 943 42 13 12 -  
DONOSTIAN 200.04

Bajada de Javier, 2 - 948 22 27 56 -  
IRUÑEAN 310.01

# Txomin Iturberen bizitzari buruzko zenbait datu

**T**xomin Iturbe, gurasoak Pedro eta Pilar zituela, 1943ko abenduaren zazpian jaio zen Arrasateko Etxezuri baserrian. Orotara, sei anaiarrebak ziren —Txomin bera, Juan Jose, Antonio, Maria Asun, Angel Mari eta Maria Isabel—. Ikasketak La Merced, San Viator eta Unión Cerrajerako eskolan burutu zituen. 1963an soldaduska egitea suertatu zitzaien eta EL Ferrolera bidali zuten, Marinara. Hiru urte beranduago, 1966an, hasi

zen lanean AMATen. Urte haietan ere bere ohizko kirolzaletasunari eman zion segida, UDA futbol taldean jokatuz. 1968-69ko temporadan Hirugarren Mailako Mondragón futbol taldean ihardun zuen hanka egin beharrean aurkitu zen arte.

Bere urtebetetze egunean bertan izkutatu behar izan zuen. 1969ko otsailan Iparraldean zegoen dagoeneko. Urte haren amaieran —abenduaren 13an— Maite Ormaetxearekin ezkondu zen. Elizkizunak Aita Piarres Lartzabalek burutu zituen Sokoako elizan. Bikoteak hiru seme jaio erazi zituen: Iraulta —70-6-30an jaioa—, Arkaitz —72-7-9an— eta Igortz —75-6-17—.

Txomin errefuxiatuta zegoela, bortxa ugari jasan zuen Gobernu frantses zein «*inkontrolatu*» engandik. 1969an bertan, Gobernu frantsesaren aginduz, Re irlara bidali zuten; 1971an, Peixotorekin batera, Garrissen atxilotu zuten; 1972ko urrian, atxiloketa berri bat, Iparraldeko bidaltzeko asmoz; 1973an, Pabera igorri; 1974an, Baionako gar-

tzelara; 1975an, Ardenesen, bortxaz, egokitutu zitzaien bizileku; 1981ko otsailaren 7an, kotxetzi zitzaola, Poliziak arinki zauritu zuen —ez omen zuen kontrol batean berebila geldiarazi— eta, gainera, hiru hilabeteko gartzela bete behar izan zituen Baionan; 1982an, Baionako gartzelan zortzi hilabete eman ondoren, Toursera bidali zuten; 1986ko apirilaren 17an atxilotu eta Bordeleko gartzelara eraman, Gabonera bidali arte.

Txominek jasandako eraso zerrrenda ez da nolanahikoa. 1975ko urriaren 22an egindako erasotik zauririk gabe ateratzen da. Urte berean, azaroaren 15an, lehergailu bat aurkitzen dute kotxe azpian. 1976ko apirilaren 22an, Txominentzako zauririk gabeko eraso berri bat. 1979ko maiatzan lortu zuten Txomin tiroz zauritzen.

1987ko otsailaren 27an Txomin hil zen Algerian, kotxe istripuz. Martxoaren 8an, Arrasaten, Euskal Herriak eskaini zion azken agur jendetxua. ■

## SALEHII



*discos  
cómics  
pósters  
fancines  
camisetas*

C/Ronda, 27 (Casco Viejo)

BILBAO

**BARRICADA**  
*internacional*

SEMANARIO INTERNACIONAL DEL FRENTE SANDINISTA DE LIBERACION NACIONAL

cada 21 días,  
desde  
Nicaragua  
a tu buzón  
**BARRICADA  
INTERNACIONAL**  
(publicación  
del Frente  
Sandinista)

*suscríbete*

Nombre \_\_\_\_\_

Profesión \_\_\_\_\_ Tel. \_\_\_\_\_

Calle \_\_\_\_\_ N.º \_\_\_\_\_

Población \_\_\_\_\_ Provincia \_\_\_\_\_

deseo hacer una suscripción anual a Barricada Internacional (3000 ptas) y utilizo la siguiente forma de pago:


Via Comité de Solidaridad de \_\_\_\_\_

Giro Postal /  Transferencia bancaria:

a Cuenta "Barricada Internacional"  
Nº 10720-7, sucursal 165  
del Banco Hispano Americano  
Diagonal 550, 08021 Barcelona

 Enviar esta tarjeta a "Barricada Internacional",  
apartado 9542 de Barcelona.

# Gudari euskaldun baten txuribeltzezko irudia



## Etxezuriko tantaixeri

Bakuen ezagutza isilik egina  
Geroztikan bizian kantu eta  
grina

Hitaz egin beharra ohorezko  
mina


Danok oroitzen hagu hintzen  
bezain fina

Agur Txomin maitia ahaztu  
ezina


Herritikan Herrira odolezko  
zina

Peixoto

Iturbe anaiak  
San Viatoren  
(1957-58ko  
ikasturtea).



Modelo Registrado - Laboratorios Fotográficos E. UTRILLA - Los Cantelos 28 - Teléfono 27 - 40 - 46  
Colegio "SAN JOSE"  
Clérigos de San Viatore  
MONDRAGON (Guipúzcoa)



Junto al Acueducto de Segovia, en un viaje de fin de estudios.




Txomin, baloia eskuartean duela, Eskolako futbol taldean.

Txomin, en  
Deba.



UCEAn  
zegoeila,  
trofeo bat  
iasotzen




Sanjuanetako  
bi irudi,  
koadrila  
lagunekin.



Sanjuanetan,  
Arrasaten.




Soldaduskan zegoela, Ferrolen, ukabila itxita.



Trofeo asko jasotzen suertatu zitzaión  
Txomini.



Txominek  
Marinan egin  
zuen  
soldaduska.



Soldaduskan,  
patatak  
zuritzen.



Campo de Berazubi, en Tolosa. Era un partido de Tercera División.



Soldaduskan, zelatari.




1969ko Aberri Eguna, Iparraldean.

Baionak



Sanjuanetan, begizorrotz. Bigarren  
argazkia 1964koa da.



Modelo registrado

Laboratorios Fotográficos

E. UTRILLA

Los Centelles, 28 Tel. 52185 Valencia

Colegio de la Merced

MM. Mercedarias

MONDRAGON (Guipúzcoa)

PUNTO  
Y  
KORM  
DE EUSKAL HERRIA  
ESTERIPOS  
FOTOGRAFICOS

Los hermanos Iturbe,  
en el Colegio de  
Merced de Arrasate  
(curso 1951-1952). A la  
izquierda, Txomin.




Con los coros de Santa Agueda.



En diciembre de 1968, Txomin, se exilia en Iparralde. En la foto durante la huelga de hambre emprendida junto a otros refugiados políticos vascos, en diciembre de 1970, en la catedral de Baiona, en reivindicación a sus derechos por las autoridades francesas.



Posando, en Atotxa, antes de disputar la final de Preferente contra el Hernani.



1972. Txomin y su compañera Maite, posan con sus hijos, Iraultza y Arkaitz poco después del nacimiento de este último.




Txomin eta Angel Iturbe anaiak. Angel, gaur egun jia




1975an. Aita, ama eta hiru semeak.



Arrasateko lagunekin, Donibane Lohizun



Miarritzeko kanpinean, semeekin.





Jian dago, deportaturik.



Ezkerrean, Xabier Pérez de Arenaza, Txominen koinata, GALEk erahila.



Txominen ezkerrean, Antonio eta Angel Iturbe anaiak. Eskubian, Juane, Txominen osaba maitea, hil aurretik harek Iparraldera egindako azken bidaian.




Txomin. Fotomatón.




1986 reencuentro de la familia Iturbe en Argel.


Indioarena egiten,  
Igortz seme  
gazteenarekin.




Txomin y Maite en Argel



1979ko erasoa jasan ondoren, zauriturik.



Poco antes de su desaparición.



Hilkutxa Arrasateko Etxezuri jaiotetxera iritsi da, 1987ko martxoaren zortzian.



Hiletak eta  
omanaldia,  
Arrasaten.



edralean, gose greban (1970an).




1969ko abenduaren 13an, Piarres Lartzabalek ezkondu zituen Txomin eta Maite Sokoako elizan.




Semea, besoartean; Maite, alboan.




Eustakio Mendizabal y su hijo Matlaz; Peixoto, en el centro; Maite y Txomin con sus hijos Iraultza y Arkaiz en brazos.



Salida de la prisión de Baiona.



Txomin sorprendido en un partido de pelota.




«Mamarru», «Azkoitzi», —en la actualidad encarcelados ambos en el Estado francés— bromeando con Txomin.




«Azkoiti»ren familiarekin.



## «Korrika»n.




## **Txomin Iturbe víctima de atentado parapolicial.**




**Kristian  
Fandoren semea  
bataiatzen.  
Txomini  
aitabitxiarena  
egitea suertatu  
zitzaiion.**




Azken atxiloketa. Ondoren, Gabonera bidali zuten.




Ultima foto de Txomin, entregada a la familia por las autoridades argelinas.




Txomin, en trabajos de marquetería.



Hilkutxa Etxezuri baserri aurrera iritsi da.



Aurrera bolie!



**ERABAKI DIAGU ETA  
ZIN EGIN  
EZ DUTELA ESANGO  
EZ DUTELA ESATERIK IZANGO  
Kantauriko hegian  
Herrizahar bat izan ze**

**"AURRERA BOLIE"**

El último adiós a Txomin tiene que hacer temblar a nuestros enemigos.  
Responde con más fuerza que nunca a los llamamientos de homenaje y lucha.

# La solidaridad, el eje de la reunificación



J. Agirre

La existencia de exiliados políticos vascos en Iparralde se remonta al pasado siglo con motivo de las guerras carlistas, aunque ya en épocas anteriores se conoce una importante migración de pobladores de Hegoalde a Iparralde. El foralismo, base de los ideales de las gentes llegadas del sur durante el pasado siglo, converge, en el norte, con los herederos de **Garat**, defensor del Biltzarre labortano, de **Matalaz**, que dirigió una sublevación contra la monarquía francesa en Zuberoa... Pero es a partir de la Guerra del 36 cuando, hombres, mujeres y niños, familias enteras, de forma masiva, alcanzan el otro lado del Bidasoa, refugiándose en Iparralde. Algunos de ellos fueron asesinados por los nazis durante la ocupación y otros, condecorados como héroes de la resistencia. Paulatinamente muchos exiliados regresan, mientras permanecen en Iparralde un indeterminado número de ellos, totalmente integrados en el medio porque, a fin de cuentas, se encuentran en Euskal Herria.

La presencia de refugiados políticos del sur de Euskal Herria en Iparralde no era una cosa extraña cuando empezaron a llegar los primeros militantes perseguidos por su presunta pertenencia a ETA. La convivencia posterior y los acontecimientos represivos hicieron de la solidaridad entre las gentes de ambos lados del Bidasoa un eje fundamental de cara a vertebrar el proyecto de reunificación de Euskadi. Este trabajo no es, ni mucho menos, una historia sintetizada de los que han sido las tres últimas décadas de exilio. Se trata, simplemente, de apuntar unas notas que ayuden a no perder de vista cuál es el contexto en el que se ha desarrollado.

## El exilio de militantes de ETA

Tras la creación de ETA en las postrimerías de los años 50, como respuesta a las ansias liberadoras del pueblo vasco frente al inmovilismo peneuvista, comienzan el exilio de la organización armada. Comienzan, también, las expulsiones de refugiados, las deportaciones, por parte de las autoridades galas, en contra del espíritu de *«Francia como tierra de asilo»* y, en consecuencia, surgen, entre la población vasca de Iparralde, las primeras respuestas de solidaridad para con los hermanos del otro lado de la muga perseguidos por la Policía franquista.

A mediados de los años 60, la actividad de ETA hace que sus militantes vayan engrosando la comunidad de refugiados en Iparralde. Surge *«Enbata»*, organización abertzale que reconoce la justa lucha de ETA por la liberación. Refugiados y militantes de *«Enbata»* confraternizan desde el primer momento, participan conjuntamente en debates en entorno al fin estratégico de la reunificación.

ficación del Norte y el Sur. «*Enbata*», además de brindar la solidaridad política a sus hermanos del otro lado, les facilita empleos, co-bijo...

A partir de 1968, tras la muerte en combate del liberado de ETA Txabi Etxebarrieta y la posterior ejecución del policía Melintón Manzanas, conocido torturador adscrito a la comisaría donostiarra, se agudiza la represión en Hegoalde y, en consecuencia, los refugiados se contabilizan por centenares. Pero los exiliados deciden salir del gueto, merced a la solidaridad de las gentes abertzales de Iparralde. Aquí se expresa un reencuentro efectivo de generaciones de refugiados. Familias vascas del sur que, procedentes del exilio de la Guerra del 36 se han asentado en Iparralde, brindan los primeros apoyos a la nueva generación de refugiados. Una vez rescatados de la automarginación, las relaciones con los refugiados se multiplican y, en la práctica, se funden Hegoalde e Iparralde en la misma causa. Resultado de ello son las parejas formadas entre exiliados y jóvenes de Iparralde y la habitual convivencia en grupos culturales y folklóricos, en movilizaciones en pro del euskara, de las ikastolas y en contra de la represión declarada por París y Madrid...

#### Confraternización y solidaridad: «Anai-arte»

La clave de la confraternización reside fundamentalmente en la asunción, por parte de las gentes de ambos lados de la muga, de que forman parte de la misma patria, circunstancialmente dividida, contra natura, por dos estados diferentes, el francés y el español, en base a intereses de clase específicos, apuntalados mediante la opresión cultural y política. De ahí que incluso abertzales de Iparralde asuman la causa del sur como propia y se den casos como el de Christian Etxaluz, una mujer de Behenafarroa que se había presentado a las elecciones por «*Enbata*», que fue detenida en Iruña en compañía de un militante de ETA y posteriormente encarcelada. La joven se negó incluso a la redención de la pena mediante el trabajo en prisión. «*No podía aceptar, por principio, barrer las cárceles de Franco*», diría Etxaluz, ya en libertad.

En el aspecto político, la solidaridad se inscribe en el contexto de la

confraternización natural entre hijos de una misma patria oprimida.

Con el objeto de facilitar la recepción de nuevos exiliados se crea, en 1969, en Donibane Lohizune, ANAI-ARTEA. El organismo, de carácter humanitario, acogerá en su sede a los refugiados desde el momento en que traspasan la muga, brindándoles alojamiento y facilitándoles documentación (tanto la carta de residencia —a través de la Subprefectura de Baiona— como la tramitación de la Carta de Refugiado Político solicitada, vía Gobierno Vasco en el exilio, a la OFPRA). El exiliado encontrará en ANAI-ARTEA protección, no sólo a nivel administrativo, sino también moral y material. La asociación humanitaria, debidamente legalizada en el Estado francés, está presidida por Piarres Larzabal, cura párroco de Sokoa y a la sazón antiguo resistente, condecorado por su participación en las operaciones militares que condujeron a la liberación del Estado francés de la ocupación nazi. Asimismo, ANAI-ARTEA cuenta en su dirección con refugiados históricos de la talla de Telesforo de Monzón y, además, está dotada de abogados como Maurice Abeberry, miembro de «*Enbata*», recientemente fallecido, figura imprescindible para los aspectos burocráticos que afectan al refugiado. Tal organismo, qué duda cabe, nunca hubiera sido posible ajeno a la confraternización entre las comunidades de uno y otro lado del Bidasoa.

Sectores de la comunidad de refugiados se integran, sin apenas dificultad, asumiendo como suyos los

problemas que afectan a la población abertzale del Norte. Ese factor es fundamental a la hora de preparar unidades de acción en torno a la represión que se acrecienta en el Sur. Prueba de ello son las movilizaciones en solidaridad con los condenados a muerte en el famoso Proceso de Burgos, en diciembre de 1970. En esas fechas, precisamente, los refugiados se encierran en la Catedral de Baiona, declarándose en huelga de hambre como señal de protesta por la asignación a residencia, fuera de Euskadi Norte, de un miembro de la comunidad. Notable es la solidaridad manifestada por la población nativa de Iparralde, tanto en las movilizaciones como en el «*Comité de Apoyo*», hacia los huelguistas de hambre en sus reivindicaciones.

#### El derecho de los refugiados vascos a vivir en Euskadi

Los refugiados políticos vascos, pese a su probada militancia revolucionaria y antifascista, en plena época de la dictadura, son considerados «personas peligrosas» por las autoridades francesas y, en consecuencia, se multiplican las medidas administrativas contra aquellos, consistentes en alejarlos del departamento a la vista de la confraternización evidente con los naturales de Iparralde y, posiblemente, contemplando que el llamado «*problema vasco del sur*» se extiende día a día más allá del Bidasoa. Así se suceden las huelgas de hambre de 1971, 72, 74, 76 y 79 contra medidas de alejamiento y en las que participan no pocos ciudadanos de Iparralde, tanto en calidad de huelguistas como inte-




Seaska movimiento aglutinador en torno al euskara en Iparralde.

grando el «Comité de Apoyo».

En aquellas protestas, mediante la huelga de hambre, junto a los refugiados, en la misma barricada, podían verse al escritor **Marc Legaspe**, a **KoKo Abeberry**, abogado, periodista y destacado miembro de «*Enbata*», a **Beñat Oihartzabal**, euskaltzain urgazlea, a **Eñaut Haritschelar**, al abogado **Jon González**... y un largo etcétera de mujeres y hombres de Iparralde. Figura que destacó de manera determinante dentro de la comunidad de refugiados fue **Telesforo de Monzón**, un jeltide que supo conectar, no ya con la población del Norte, asumiendo como propios sus problemas, sino que también hizo suya la lucha de la nueva generación de refugiados, siempre bajo la máxima del «derecho de los refugiados vascos a vivir en Euskadi». **Monzón** sufrió, en su propia carne, medidas arbitrarias emanadas de la Administración francesa, siempre por mediar y recabar solidaridad con los exiliados.

Si la confraternización con los refugiados se hacía efectiva, también es cierto que éstos, recíprocamente, se solidarizaban con sus hermanos del Norte en momentos cruciales, como el hostigamiento gubernamental a la organización política vasca «*Enbata*»; en las batallas por el euskara, apuntalando las primeras ikastolas.... En el terreno de las ikastolas no se observa discriminación alguna. Por ejemplo, en Baiona, desde el inicio de los años 70, son dos jóvenes refugiadas quienes ejercen su trabajo como andereños en la ikastola. Más adelante se sumarían no pocos refugiados a estas tareas. **SEASKA**, organismo que aglutina a las ikastolas de Iparralde, reunirá en su seno a militantes refugiados de Hegoalde junto a ipartarras, manteniéndose hasta la fecha como uno de los más firmes pilares de la defensa del euskara y la cultura vasca.

En el aspecto cultural y político, la integración de los refugiados en la juventud de Iparralde se hace patente en organizaciones como «*Jazar*», a partir de 1972, en grupos culturales como «*Euskal Gogoa*» o «*Mende Berri*». Los exiliados comprenden muy pronto que Iparralde, por decreto de París, está declarado como «*zona verde*», dedicada al turismo de todo el Estado, y del problema que esto acarrea: la emigración de la juventud hacia ciudades industriali-



Telesforo de Monzón.

zadas del Estado francés, lo cual implica el decrecimiento de la población y, en consecuencia, pérdidas relevantes en detrimento de la cultura y la conciencia nacional vasca. Si bien sectores de la comunidad de refugiados deciden emigrar a París, Lyon, Burdeos, Bélgica o América, el grueso de la comunidad se niega a alejarse de su propia patria, en base a los principios asumidos de permanecer en tierra vasca.

Sin embargo, paulatinamente se siente la necesidad de crear cooperativas como salida al desempleo manifiesto. Tanto los del norte como los del sur confluyen en estos proyectos, muchos de ellos con importante éxito. Por otra parte, en el inicio de los 70, los exiliados comienzan a interpretar, junto a las gentes de Iparralde, la necesidad de trabajar en el interior, donde la población baserritarra es mayoritaria; donde el medio de expresión, la lengua vasca, es común. Siguiendo con premura esta iniciativa, un sector de refugiados deja su letargo en la zona de la costa y se integra en Behenafarroa y Zuberoa (en Maule comienzan a trabajar en el sector del calzado, aunque ya en decadencia, incidiendo notablemente en los sindicatos). La integración en el interior de Iparralde hace que los lazos se afiancen más si cabe entre los abertzales de uno u otro lado de la muga, a través de los proyectos cooperativistas de envergadura o, más sencillos, como la propia granja ubicada en una población próxima a Donapaleu, donde trabajaron, junto a jóvenes de Ipa-

rralde, **Eustakio Mendizabal**, «*Txikia*», y **Txomin Iturbe**.

En momentos duros de represión, notables personalidades de Iparralde no dudan en acoger en sus casas a refugiados sobre los que pesan medidas administrativas de alejamiento. Fue en 1974, tras una durísima huelga de hambre, cuando la población de Iparralde toma esta iniciativa, que, en años posteriores, será fundamental para la comunidad del Sur.

En 1974 y 75, cuando la represión por parte de la Policía gala se acentúa, coincidiendo con el aluvión de nuevos refugiados perseguidos por presunta militancia en ETA, y la organización armada vasca ya había sido declarada en el Estado francés ilegal —se apuntaba ya el concepto jurídico «*asociación de malhechores*»—, en fechas de procesos sumarísimos que llevarían al paredón a **Paredes Manot**, «*Txiki*», y **Otaegi**, se manifiesta la solidaridad en su punto culminante. Las movilizaciones, los llamamientos a la intelectualidad, a los sindicatos... dan prueba de un trabajo arduo y conjunto sin precedentes.

La organización de solidaridad se expande por todo Iparralde y desde allá al resto del Estado. Además de los grupos políticos antes señalados, coincidiendo con la creación de la Coordinadora Abertzale Sozialista (KAS), surge EHAS, partido político socialista, independentista, integrado por militantes de uno y otro lado de la muga. Así, en Iparralde coinciden, por poner un ejemplo, el doctor en Medicina **Santi Brouard**, refugiado político vasco, y el historiador **Manex Goyenetche**, entre otros, en las filas del citado partido.

El grado de concienciación lleva a la creación de un embrionario colectivo de mujeres feministas en el que participan tanto personas de Iparralde como refugiadas. Puede afirmarse que, precisamente, es en Iparralde, en 1974, donde surge el primer punto de referencia de Euskadi específico de mujeres por su liberación, independentista y consciente de la triple opresión: patriarcal, de clase y nacional.


#### Represión y muerte en Iparralde

Ya al final de la dictadura del general **Franco**, los parapoliciales comienzan a campar, con toda impunidad, en Iparralde. Unas veces como BVE, otras como Triple A, los

mercenarios, pagados por los servicios secretos españoles surgidos a la sombra de **Carrero Blanco**, traspasan la frontera, acosando a refugiados, aunque sus acciones son frustradas y la única muerte que se conoce es la de un parapolicial, despedazado al explotarle la bomba que manipulaba en Miarrizte, en las inmediaciones del domicilio de un refugiado. **Txomin Iturbe** fue objeto de atentado, atentado frustrado, por fortuna, gracias a que uno de sus hijos observó el artefacto colocado en el automóvil en el que iba a ser transportado a la ikastola. Todo esto sucedía en plena efervescencia de las movilizaciones populares en Iparralde, cuando **Franco** ordenaba pasar por las armas a **Txiki, Otaegi** y los miembros del **FRAP**. En aquellas masivas movilizaciones, en las que refugiados y nativos de Iparralde coreaban al unísono **«Franco, asesino, Ponia (Poniatovski ministro del Interior francés de la época), Giscard cómplices»**.

Entrada la Reforma española en escena, la situación empeora para los refugiados, pero la solidaridad hacia ellos no sólo se mantiene, sino que, además, se acrecienta, habida cuenta de que los exiliados, tanto los históricos que deciden permanecer en Iparralde como los que van llegando, estrechan aún más, si cabe, los lazos de unión.

Pero los parapoliciales españoles, en connivencia con funcionarios galos, logran pegar en lo más sensible de la comunidad de refugiados. El 21 de diciembre de 1978, **José Miguel Beñaran, «Argala»**, es asesinado. Poco después, los mercenarios se cobran nuevas víctimas mortales: **«Pantu», «Periko», «Usurbil»** y la esposa del ex refugiado **Juan**



José Miguel Beñaran «Argala».



La comunidad de refugiados conoce la represión en forma de razzias policiales, deportaciones, entregas, terrorismo de Estado... gracias a la colaboración entre París y Madrid.

**José Etxabe, Agurtzane Arregi.** Asimismo, son heridos en atentado parapolicial los exiliados **Feli Zuluaga** —compañera de **Tomás Pérez Revilla**, asesinado pocos años des-

pués—, **Txomin Iturbe** y **José Manuel Pagoaga, «Peixoto»**.

Pero la colaboración París—Madrid llega a su céñit cuando el «socialista» **Mitterrand** alcanza El Eliseo su homónimo, en rango e ideología, **González**, accede a la Moncloa. Curiosamente, a partir de entonces comienza a aparecer la siniestra singladura de los parapoliciales del **GAL**, genuina representación de los peones mercenarios del Terrorismo de Estado, enmarcado en el proceso más cruento y doloroso de la historia del exilio vasco. El terror, las razzias,

confinamientos, deportaciones, entregas a la Policía española... serán las coordenadas en las que se enmarca la colaboración franco-española, como moneda de cambio para la comunidad de refugiados y de castigo para Iparralde. En definitiva, un intento de estrangular la solidaridad


y confraternización demostrada a lo largo de los años por mujeres y hombres de un mismo pueblo oprimido. Mientras tanto, hasta el presente, a uno y otro lado de la muga sobrevive una Euskadi que resiste, un pueblo que aspira legítimamente a romper las cadenas que físicamente lo dividen para, victorioso, acceder un día a la reunificación. ■

restaurante - jantoki  
DOS  
HERMANOS  
casa fundada en 1887

Aventuras gastronómicas

Nuestros nuevos teléfonos: 13 29 34 - 13 44 46

Madre Vedruna, 10 vitoria-gasteiz



P.I.

**T**«Txomin ezagutu nuen 68.an, 'Mon-bar' ostatuan. Etorri berri berria zen. Bera eta beste bi zoko batetan zeuden, arrasateraz mintzatzen, eta nik ez nuen ezer ulerzen. Gartzelan egona nintzen, 65ean Iruñean atxilotu eta urte t'erdi pasa nituen ('Enbata' mugimenduari esker, militarrek 12 urte eskatzen bait zituzten) eta Iparraldean harek izan zuen arrabotsez ezaguna egin nintzen. Gero, hauteskundeetara aurkeztu ninduten eta bozatikatik %5a ateratzea lortu genuen. Guzti hori zela eta 26 urte nituela, errefuxiatuak oso erakargarri gertatzen zitzaizkidan, asko maite nituen».

Orduko giroaz galdetzen diogu. «'Enbata' zikinak deitzen ziguten, piska bat punk-ak bezala sentituak ginen, je, je. Zergatik? Ba, begira, gure etxeak ez ziren abertzaleak, euskaldunak baizik. Eta gure ingurumena eskuindarra zen, langilea izan arren. Defendatzen genuena kimera bat zen haientzat, amets bat».

